

**TXOSTENA  
BORONDATEZKO GIZARTE  
AURREIKUSPENA EAE-N**

**FINANTZA POLITIKAKO ZUZENDARITZA  
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**

**2022.  
URTEA**



## 2022. URTEKO LABURPENA

**Balantze-zifra.** Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ondarea 26.887 milioi eurora iritsi zen. Termino makroekonomikotan adierazita, 2022ko EAeko aurreikusitako BPGd-aren % 31,64 da (84.973 milioi euro prezio korrontetan).

Ekitaldi horretan, ekarpenekin sartutakoaren eta BGAE-ek beren aurreikuspen-planen bidez prestazio eta erreskate gisa ordaindutakoaren arteko aldea 50 milioi euroko saldo positiboa izan da.

**Bazkide kopurua.** Bazkidetzat jotzen dira aurreikuspen-planetan parte hartzen duten pertsonak, eta 1.292.792 dira, zehazki. Gerta daiteke zifra horretan bikoiztasunak egotea, pertsona berak zenbait aurreikuspen-plan izan ditzakeelako harpidetuta.

**Bazkideak.** BGAE bakoitzaren esparruan, pertsona bat behin bakarrik zenbatzen da bazkide gisa, nahiz eta erakunde berean aurreikuspen-plan bat baino gehiago izan harpidetuta. Irizpide horri jarraikiz, **bazkide** kopurua 1.150.275 da; horixe da BGAE-etan dauden bazkideen guztizko kopurua. Halere, zifra horretan ere egon daitezke bikoiztasunak; izan ere, pertsona bat BGAE baten baino gehiagoren bazkide izan daiteke; hori horrela, pertsona bat zenbat erakundetan den bazkide, hainbeste aldiz zenbatuta egongo da zifra horretan.

Bestalde, BGAE-ek Bazkideen Fitxategi Orokorrean emandako datuei esker, aurreko zifra horietan gertatzen diren bikoiztasun guztiak ken daitezke; horren arabera, 2022ko abenduaren 31n aurreikuspen-planak zituzten BGAE-en bidez babestutako **bazkide desberdinen kopurua** 847.887 da (EAeko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatuaren % 45, Eustaten arabera). Aurreikuspenaren hirugarren zutabea osatzen duten banakako BGAE-en kasuan, EAeko 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren hiru pertsonatik bat, gutxi gorabehera, banakako BGAE batean sartuta dago.

**Ekarpenak.** 2022. urtean, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenen bidezko diru-sarrerak % 1 txikitu ziren aurreko ekitaldikoekin alderatuz. Hala ere, portaera aldatu egin da BGAE modalitatearen arabera; izan ere, enplegu-modalitateko BGAE-ei egindako ekarpen eta kontribuzioengatik diru-sarrerak % 4,61 igo dira, eta banakako BGAE-ei egindako ekarpenak, berriz, % 5,89 jaitsi dira.

**Prestazioak.** Ordaindutako prestazioen zenbatekoa 667 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 6,29 gehiago. Azken lau ekitaldietan ordaindutako prestazioek antzeko zifrak dituzte, eta aldi horretako batez besteko zenbatekoa 650 milioi eurokoa da.

**Kobratzeko modalitateak.** Enpleguko BGAE-en kobratzeko modu ohikoena errenta aktuariala da (% 61), zeina bat datorren BGAE-en xede sozialarekin. Bestalde, banakako BGAE-etan kontrakoa gertatzen da, ohikoena prestazioak kapital moduan kobratzea baita, eta, beraz, jasotakoaren % 78 kapital gisa jaso da, aurreko ekitaldian baino ehuneko hiru gehiago.

**Erreskateak.** Erreskateagatik (prestazioen bat eragin baino lehen eskubide ekonomikoak aldeztatik edukitzea) gizarte-aurreikuspen osagarriko sistematik kendutako zenbateko osoa 117 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian erreskatatutako zenbatekoarekin alderatuta % 2ko igoera izan zuen, erreskateek 2014tik izandako murrizketa esanguratsuekin kontrastea.



**Errentagarritasuna.** Banakako aurreikuspen-planek  $-\% 10,63$ ko batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboa izan dute. Errenta aldakorreko planek izan dute batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboena:  $-\% 14,26$ koa, hain zuzen ere. Bestalde, inbertsio-orientazio nagusiaren banakako aurreikuspen-planek, errenta finko mistoko planek,  $-\% 10,98$ ko batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboa lortu dute.

Enplegu-modalitateko aurreikuspen-plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua negatiboa eta  $-\% 5,28$ koa izan da. Horrez gain, zehaztutako ekarpenen enplegu-planek  $-\% 3,34$ ko batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboa izan dute, eta zehaztutako prestazioen planek  $-\% 7,26$ ko errentagarritasun negatiboa.

Dena den, kontuan izan behar da legediak enpleguko erakundeei aukera ematen diela, baldintza jakin batzuk betez gero, errenta finko negoziagarriko zorroa kostu amortizatuaren irizpidea erabiliz kontabilizatzeko, eta, horrenbestez, errentagarritasun horiek ezin alderatu daitezke zuzenean banakako erakundeekin, zorro hori merkatu-balioaren arabera kontabilizatu behar dutelako.

**Inbertsioak.** Bazkideen  $\% 69$ k, adina kontuan hartu gabe, errenta finko mistoko planak aukeratu ditu, eta errenta aldakorreko aktiboetan inbertitutakoa ez da iristen  $\% 30$ era ere. Ehuneko hori  $\% 92$ ra iritsi da enplegu-planetan.

Enpleguko eta banakako BGAE-en funtsen  $\% 38$  bertako merkatuan (Espainiako Estatu) inbertituta daude;  $\% 49$ , euroguneko herrialdeetan, eta gainerako  $\% 13$ a, eurogunekoak ez diren herrialdeetan.

Era berean, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en funtsen  $\% 48$  errenta finkoko titulutan inbertituta daude;  $\% 11$ , errenta aldakorreko titulutan;  $\% 35$ , inbertsio-funtsetan;  $\% 4$ , eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan, eta gainerako  $\% 2$ a, aurreko kategorietan sartuta ez dauden beste aktibo mota batzuetan.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMV) erabilitako irizpide bera erabiliz gero, errenta aldakorrekotzat jotako inbertsio-funtsak errenta aldakor gisa zenbatuko lirateke ( $\% 20$ ). Aurrekoaren ondorioz, enpleguko eta banakako BGAE-en funtsen  $\% 31$  errenta aldakorrean inbertituta zeuden 2022an; hau da, aurreko ekitaldian baino  $\% 1$  gehiago.

Bestalde, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek prestazioengatiko konpromisoei erantzuteko eraturako funts guztien  $\% 5,7$ , gutxi gorabehera, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten jaulkitzaileen aktiboetan inbertituta daude.

**Administrazio-gastuak.** Banakako BGAE-etako administrazio-gastu guztien ehunekoa  $\% 1,27$ ra igo zen. Zehaztutako ekarpenen enpleguko BGAE-etako batez besteko administrazio-gastu guztien ehunekoa, berriz,  $\% 0,88$ koa izan zen. Horrek esan nahi du banakako BGAE-etan administrazio-gastu moduan ezarritako batez besteko ehunekoa  $\% 44$  handiagoa dela enpleguko BGAE-ek zehaztutako ekarpenen enplegu-planetan gastu moduan ezarritakoa baino.

Bestalde, enpleguko 4 BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoa (enpleguko BGAE-en ondare guztiaren  $\% 79$  eta modalitate horretako bazkideen  $\% 92$  biltzen dituzte)  $\% 0,41$ ekoa da; hau da, banakako BGAE-ek administrazio-gastu gisa egotzitako ehunekoa hiru aldiz handiagoa da enpleguko 4 BGAE sektorialek egotzitako batez besteko ehunekoa baino.



**Generoa.** BGAE-etan, garbi ikusten da genero-arrakala; izan ere, gizonezko bazkide gehiago daude emakumezko bazkideak baino, eta emakumeek egiten dituzten batez besteko ekarpenak eta jasotzen dituzten prestazioak baxuagoak dira gizonenak baino. Prestazioen kasuan, gizonek jasotzen duten batez besteko zenbatekoa emakumeek jasotzen dutena baino % 46 handiagoa da.

**Biztanleria okupatua:** Biztanleria okupatuaren % 26k bakarrik ditu enplegu-aurreikuspeneko sistema osagarriak, eta lurralde historikoen araberako banaketa ez da orekatua.



# AURKIBIDEA

<b>1. BGAE-AK 2022. EKITALDIAN .....</b>	<b>1</b>
1.1. BGAE kopurua, modalitatearen arabera.....	1
1.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en balantze-zifra .....	2
1.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen kopurua .....	3
1.3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen adina .....	3
1.3.2. Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen adina....	4
1.3.3. Banakako aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen adina....	4
1.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenak eta prestazioak.....	5
1.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenak .....	5
1.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen ekarpenen maila eta zerga-gastua .....	6
1.4.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak .....	8
1.4.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en prestazioak kobratzeko modua	13
1.4.5. Enpleguko BGAE-en prestazioak kobratzeko modua .....	14
1.4.6. Banakako BGAE-en prestazioak kobratzeko modua .....	14
1.5. Erreskateak aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan .....	15
1.6. Enpleguko BGAE-ek ematen duten babes-mailari buruzko ikuspegi orokorra .....	15
1.7. Laburpena, generoaren ikuspegitik.....	16
<b>2. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA .....</b>	<b>19</b>
2.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en kopuruaren bilakaera .....	19
2.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en balantze-zifraren bilakaera .....	19
2.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkide kopuruaren bilakaera .....	20
2.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpen eta prestazioen bilakaera .....	20
2.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenen bilakaera .....	21
2.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en prestazioen bilakaera.....	21
2.5. BGAE-en erreskateen zenbatekoaren bilakaera .....	22
2.6. BGAE-en ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera.....	23
<b>3. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN DIMENTSIOA .....</b>	<b>24</b>
3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en dimentsio ekonomikoa .....	24
3.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en tamaina, haien ondarearen arabera .....	25
3.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en tamaina, bazkide kopuruaren arabera.....	26
3.4. Enplegu-planen modalitateak, ekarpenen eta prestazioen erregimenaren eta enpresa anitzeko planen arabera .....	26



3.5	Enpleguko aurreikuspen-sistemak, biztanleria okupatuari dagokionez .....	27
4.	BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA .....	29
4.1.	Banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna .....	29
4.2.	Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna.....	30
4.3.	Inbertsio-orientazioa, aurreikuspen-planetako bazkideen adinaren arabera .....	31
4.4.	Inbertsio-orientazioa, enplegu-planen bazkideen adinaren arabera .....	34
4.5.	Inbertsio-orientazioa, banakako planetako bazkideen adinaren arabera .....	35
4.6.	Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en inbertsioen egitura .....	35
4.7.	Enpleguko BGAE-en inbertsioen egitura.....	36
4.8.	Banakako BGAE-en inbertsioen egitura.....	37
4.9.	Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek EAEn egiten duten inbertsioa .....	37
4.9.1.	Enpleguko BGAE-ek EAEn egiten duten inbertsioa .....	38
4.9.2.	Banakako BGAE-ek EAEn egiten duten inbertsioa .....	38
4.10.	Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek EAEn zor publikoan egiten duten inbertsioa .....	38
4.11.	BGAE-en inbertsioen xede diren EAEn enpresa nagusiak .....	39
4.12.	Administrazio-gastuak.....	39
5.	AURREIKUSPEN PLANIK GABEKO BGAE-AK.....	41
6.	GAINBEGIRATZEA 2022.....	42

# 1. BGAE-AK 2022. EKITALDIAN

## 1.1. BGAE kopurua, modalitatearen arabera

2022an, Euskadin operatibo zeuden Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (BGAE) kopurua 107koa izan zen. Horietatik 68 aurreikuspen-planak dituzten erakundeak dira, hau da, aurreikuspen-planen bidez Gizarte Segurantzaren prestazioen osagarri diren prestazioak ematen dituzte. Gainerako 39 erakundeek, aurreikuspen-planik gabeko BGAE-ek konfiguratzeko dituzte eta beste arrisku mota batzuk estali dituzte, hala nola heriotzak, suteak eta bestelakoak.

1. koadroa			
BGAEa	Modalitatea	Erakunde kopurua	%/guztizkoa
aurreikuspen-planekin	Elkartua	2	% 1,9
	Enplegukoa	37	% 34,6
	Enplegukoa lehentasunezkoa	3	% 2,8
	Banakakoa	26	% 24,3
	<b>Guztizkoa</b>	<b>68</b>	<b>% 63,6</b>
aurreikuspen-planik gabe	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / heriotzak	26	% 24,3
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / Sutearo	1	% 0,9
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / garraioak	1	% 0,9
	Bereizi gabe / heriotzak	4	% 3,8
	Bereizi gabe / ontziak	1	% 0,9
	Gizarte-prestazioak	6	% 5,6
	<b>Guztizkoa</b>	<b>39</b>	<b>% 36,4</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>107</b>	<b>% 100,0</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planik gabeko 39 BGAEak oso ondare-dimentsio txikiko erakundeak dira, aurreikuspen-planak dituzten 68 BGAE-en aldean.

2. koadroa				
BGAEa	Modalitatea	Erakunde kopurua	Balantze Zifra (€)	%/guztizkoa
aurreikuspen-planekin	Elkartua	2	20.239.350,77	% 0,1
	Enplegukoa	37	4.250.798.403,63	% 15,8
	Enplegukoa lehentasunezkoa	3	10.656.172.275,67	% 39,6
	Banakakoa	26	11.960.292.255,37	% 44,4
	<b>Guztizkoa</b>	<b>68</b>	<b>26.887.502.285,44</b>	<b>% 99,9</b>
aurreikuspen-planik gabe	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / heriotzak	26	19.389.244,30	% 0,1
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / Sutearo	1	4.633.598,78	% 0,0
	Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / garraioak	1	1.576.542,95	% 0,0
	Bereizi gabe / heriotzak	4	189.889,43	% 0,0
	Bereizi gabe / ontziak	1	0,00	% 0,0
	Gizarte-prestazioak	6	1.878.520,22	% 0,0
	<b>Guztizkoa</b>	<b>39</b>	<b>27.667.795,68</b>	<b>% 0,1</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>107</b>	<b>26.915.170.081,12</b>	<b>% 100,0</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planik gabeko BGAE-en balantze-zifraren ehunekoa huskeria da, BGAE guztien balantze-zifraren guztizkoarekin alderatuz, eta, gainera, erakunde horiek arrisku jakin batzuk estaltzen dituzte; ez dute inolaz ere pentsioen sistema publikorako pentsio osagarrien izaera. Hots, BGAE horiek ez dira, oro har, bigarren edo hirugarren zutabe modura izendatzen denaren tresnak egituratzen dituzten erakundeak.



Aurrekoa aintzat hartuta, txosten hau, batez ere, Gizarte Segurantzari prestazio osagarriak ematen dizkioten 68 BGAE-etan oinarrituko da, Euskadiko aurreikuspen osagarriaren diagnostikoa egiteko. Hau da, sistema publikoaren osagarri diren pentsio-sistemak (batez ere erretirokoak) egituratzen dituzten autonomia-eremuko erakundeen multzoa. Gainerako erakundeak ez dira esanguratsuak ondare-bolumenari dagokionez, baina zeregin sozial garrantzitsua dute.

Horregatik, txosten honen amaieran, berariazko atal bat eskainiko zaie bazkidearen ondasunek izandako kalte-galerak estaltzen dituzten BGAE-ei, kalte-galerok ohiko etxebizitzan, ukuiluetan, biltegietan, pabiloietan, zerrategietan, labeetan, errotetan, etxeko ostilamenduan, lan-tresnetan, ganaduan, uztetan, basoetan, ontzietan, ibilgailuetan edo bere lan-jarduerari edo ogibideari lotutako beste edozein ondasunetan gertatzen direnean.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAEak, izaera eta bazkideen artean dagoen lotura kontuan hartzen bada, honela sailkatzen dira: banakakoak, enpleguakoak eta elkartuak. Bestalde, enpleguko BGAE-ek enpleguko BGAE-en lehentasunezko kalifikazioa lor dezakete, baldin eta betekizun jakin batzuk betetzen badituzte, besteak beste, jatorria eta enpresa-itunaren bidez eratzea, bazkideak sartzean diskriminaziorik ez egiteko printzipioa eta, ahal dela, prestazioa errenta gisa jasotzea. Horrela, gizarte-aurreikuspen osagarriaren garapenaren funtsezko elementu dira etorkizunean.

2022an, lehendik zegoen enpleguko BGAE-etako batek akordio egokiak hartu ditu lehentasunezko enpleguko BGAE gisa sailkatzeko.

Enpleguko 40 BGAE-etatik 3k lehentasunezko enpleguko BGAE kalifikazioa lortu dute: LAGUNARO, LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE; GEROA PENTSIOAK, LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE; eta ELKARKIDETZA, LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE.

## 1.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en balantze-zifra

### 3. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Balantze Zifra (€)	%/guztizkoa
Elkartua	2	20.239.350,77	% 0,1
Enplegukoa	37	4.250.798.403,63	% 15,8
Enplegukoa lehentasunezkoa	3	10.656.172.275,67	% 39,6
Banakakoa	26	11.960.292.255,37	% 44,5
<b>Guztizkoa</b>	<b>68</b>	<b>26.887.502.285,44</b>	<b>% 100,0</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko BGAE-en balantze osoaren zifra (14.907 milioi euro) banakako BGAE-en balantze osoaren zifra (11.960 milioi euro) baino 3.000 milioi euro handiagoa da. Ehunekotan, enpleguko BGAE-en balantze osoaren zifra enpleguko BGAE-en % 55 da, eta, aldiz, banakako BGAE-en zifra aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztien balantze osoaren % 44 da.





Aurreikuspen-planak dituen BGAE baten batez besteko balantze-zifra 395 milioi eurokoa izan da 2022an. Banakako BGAE-en kasuan, batez besteko balantze-zifra 460 milioi eurokoa izan da, eta, enpleguakoa (lehentasunezkoak eta ez-lehentasunezkoak) 373 milioi eurokoa. Agerikoa da banakako BGAE-en batez besteko balantzea handiagoa dela enpleguakoa BGAE guztiena baino.

### 1.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen kopurua

#### 4. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Gizonezko bazkideak		Emakumezko bazkideak		Bazkide kopurua
		Kopurua	%/guztizkoa	Kopurua	%/guztizkoa	
Elkartua	2	1.165	% 0,18	177	% 0,03	1.342
Enpleguakoa	37	66.614	% 10,55	94.857	% 18,27	161.471
Enpleguakoa lehentasunezkoa	3	229.844	% 36,42	137.744	% 26,53	367.588
Banakakoa	26	333.542	% 52,85	286.332	% 55,16	619.874
<b>Guztizkoa</b>	<b>68</b>	<b>631.165</b>	<b>% 100,00</b>	<b>519.110</b>	<b>% 100,00</b>	<b>1.150.275</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2022an, 1.150.275 pertsona egon dira aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan. Azterketa genero-ikuspegitik eginez gero, bazkideen % 55 gizonak dira eta % 45 emakumeak, aurreko ekitaldietan gertatzen zen moduan.

2022an, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek 16.916 bazkide izan dituzte, batez beste. Banakako BGAE-ek, batez beste, 23.841 bazkide dituzte, eta enpleguakoa BGAE guztiek, berriz, 13.226. Banakako BGAE-etako batez besteko bazkide kopurua enpleguakoa BGAE-en arloko batezbestekoaren ia bikoitza da.

#### 1.3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen adina

#### 5. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	%/guztizkoa
0-20 urte	1.615	1.360	2.975	% 0,2
21-25 urte	9.275	7.584	16.859	% 1,3
26-30 urte	20.386	19.537	39.923	% 3,1
31-35 urte	32.238	30.363	62.601	% 4,8
36-40 urte	52.795	45.205	98.000	% 7,6
41-45 urte	85.591	69.902	155.493	% 12,0
46-50 urte	109.098	87.381	196.479	% 15,2
51-55 urte	107.442	85.907	193.349	% 15,0
56-60 urte	102.734	89.458	192.192	% 14,9
61-65 urte	82.810	73.346	156.156	% 12,1
65 urtetik gora	103.159	75.606	178.765	% 13,8
<b>Guztizkoa</b>	<b>707.143</b>	<b>582.840</b>	<b>1.292.792</b>	<b>% 100,0</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik kontuan hartuta, aurreikuspen-planetako bazkideek, batez beste, 49 urte dituzte. Batezbesteko hori berdina da bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

Kolektibo horren % 29k 46 urte baino gutxiago dituzte. 46 eta 60 urte bitarteko artean, kolektiboaren % 45 biltzen da, eta 60 urtetik gorakoen artean, % 26. Adin-tartean

araberako portzentajezko banaketa hori errepikatu egiten da emakumeen eta gizonen kasuan.

### 1.3.2. Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen adina

#### 6. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa	%/gutzizkoa
0-20 urte	932	716	1.648	% 0,3
21-25 urte	7.130	5.813	12.943	% 2,4
26-30 urte	13.760	13.364	27.124	% 5,1
31-35 urte	19.427	18.645	38.072	% 7,1
36-40 urte	28.599	23.933	52.532	% 9,9
41-45 urte	42.208	32.652	74.860	% 14,1
46-50 urte	48.943	36.450	85.393	% 16,0
51-55 urte	43.242	32.744	75.986	% 14,3
56-60 urte	36.873	31.093	67.966	% 12,8
61-65 urte	27.603	23.828	51.431	% 9,7
65 urtetik gora	28.095	16.314	44.409	% 8,3
<b>Gutzizkoa</b>	<b>296.812</b>	<b>235.552</b>	<b>532.364</b>	<b>% 100,0</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreko puntuan bezala, 65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik kontuan hartzen bada, enpleguko aurreikuspen-planetako (lehentasunezkoak eta ez-lehentasunezkoak) bazkideen batez besteko adina 47 urtekoa da, hau da, bazkide guztien batezbestekoa baino bi urte gazteagoa. Batezbesteko hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. 35 urtetik beherakoak kolektiboaren % 15 dira.

Bazkideen % 39k 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitartekoaren artean, kolektiboaren % 43 biltzen da, eta 60 urtetik gorakoaren artean, gainerako % 18a.

### 1.3.3. Banakako aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen adina

#### 7. koadroa

Bazkideak	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa	%/gutzizkoa
0-20 urte	683	644	1.327	0,17%
21-25 urte	2.145	1.771	3.916	% 0,52
26-30 urte	6.624	6.173	12.797	% 1,69
31-35 urte	12.810	11.717	24.527	% 3,23
36-40 urte	24.177	21.269	45.446	% 5,99
41-45 urte	43.230	37.212	80.442	% 10,60
46-50 urte	59.916	50.865	110.781	% 14,59
51-55 urte	63.985	53.107	117.092	% 15,43
56-60 urte	65.680	58.339	124.019	% 16,34
61-65 urte	55.076	49.507	104.583	% 13,78
65 urtetik gora	74.850	59.265	134.115	% 17,67
<b>Gutzizkoa</b>	<b>409.176</b>	<b>349.869</b>	<b>759.045</b>	<b>% 100,00</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Berriz ere, azterketan 65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik hartzen badugu kontuan, banakako aurreikuspen-planetan parte hartzen dutenen batez besteko adina 51 urte da, hau da, bazkide guztien batezbestekoa baino bi urte gehiago, eta enplegu-planetara bildutako pertsonen batez besteko adina baino lau urte gehiago. Batezbesteko

hori antzekoa da bai emakumeentzat, bai gizonentzat. 35 urtetik beherakoak kolektiboaren % 6 dira, enpleguko BGAE-etan gertatzen dena baino ehuneko 9 puntu gutxiago.

Kolektibo horren % 22k 46 urte baino gutxiago ditu. 46 eta 60 urte bitartekoen artean kolektiboaren % 46 biltzen da, eta 60 urtetik gorakoek artean, berriz, % 32.

Aurreko datuen arabera, enpleguko BGAE-etan (lehentasunezkoak eta ez-lehentasunezkoak), pertsonak adin txikiagoarekin sartzen dira banakako modalitate BGAE-en aldean, eta horrek ahalbidetzen du pertsona horien ekarpenen eta kapitalizazioaren ibilbidea luzeagoa izatea —behar besteko pentsio osagarriak eduki ahal izateko—.

#### 1.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenak eta prestazioak

##### 8. koadroa

Modalitatea	Erakunde kopurua	Ekarpenak		Prestazioak	
		Zenbatekoa (€)	%/guztizkoa	Zenbatekoa (€)	%/guztizkoa
Elkartua	2	248.335,04	% 0,0	464.294,32	% 0,1
Enplegukoa	37	165.778.291,60	% 19,9	150.306.046,80	% 22,5
Banakakoa	26	416.132.029,45	% 49,9	202.185.344,32	% 30,3
Enplegukoa lehentasunezkoa	3	252.487.894,06	% 30,2	314.492.031,54	% 47,1
<b>Guztizkoa</b>	<b>68</b>	<b>834.646.550,15</b>	<b>% 99,9</b>	<b>667.447.716,98</b>	<b>% 100,0</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

8. koadroan ageri diren datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan kontingentzia jakin batzuetarako egindako ekarpen eta prestazioei buruzkoak dira: erretiroa, heriotza, mendekotasuna, ezintasun iraunkorra, iraupen luzeko langabezia eta gaixotasun larria, hain zuzen; hau da, aurreikuspen-planen bidez eman daitezkeen prestazioak. Datu horietan ez dira ageri, beraz, beste gizarte-prestazio batzuk jasotzeko (hala nola aldi baterako ezintasuna, enplegurako laguntzak, zenbait prestazio mediko, etab.) egiten diren ekarpenak eta prestazioak; enpleguko BGAE batzuek ematen dituzte horrelako prestazioak, baina ezin dira jo bigarren edo hirugarren zutabetzat.

Bestalde, erreskateak ere ez daude jasota taulan, kontzeptualki, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzea ez baita prestazio bat.

##### 1.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenak

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenen zenbatekoa 834.646.550,15 €-koa izan zen; horrek esan nahi du % 1eko igoera izan dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Generoaren ikuspegitik, portaera aurreko urtekoaren oso antzekoa izan da: sistemari egindako ekarpenen % 56 gizonen egin dute (471.312.702,09 €); eta emakumeek, berriz, ekarpenen % 44 egin dute (363.333.848,06 €). Horrek esan nahi du emakumeen ekarpenak, orotara, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino % 1 txikiagoak direla.

Beste alde batetik, 2022aren abenduaren 31n aurreikuspen-planak aktibo dituzten BGAE-etan ekarpenak egiten ari ziren pertsonak egindako ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.443 €-koa izan da (1.560 € gizonetzkoek, eta zertxobait gutxiago emakumezkoek, 1.316 €). Gizonen batez besteko ekarpena emakumeena baino % 19 handiagoa da.

Enplegu-plan guztietan, bazkideen ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.486 €-koa zen. Kasu horretan, gizonen ekarpenen batezbestekoa (1.718 €) emakumeen batezbestekoa (1.243 €) baino % 38 handiagoa da. Enpleguko aurreikuspen-plan guztietan egindako ekarpenen batez besteko zenbateko hori Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Planean helburu gisa ezarritako zenbatekoa baino txikiagoa da (1.800 €). Horri dagokionez, komenigarria da azpimarratzea bazkide guztien herenak bakarrik egiten duela 1.800 €-tik gorako ekarpena, enpleguko BGAE guztiak kontuan hartuta.

Bestalde, banakako modalitateko planetan, ekarpenen batez besteko zenbatekoa 1.402 €-koa zen (1.415 €-koa gizonen kasuan eta 1.388 €-koa emakumeen kasuan, txikiagoa).

## 1.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen ekarpenen maila eta zerga-gastua

### 1.4.2.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen ekarpenen maila

#### 9. koadroa

<b>Ekarpenak</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>	<b>Guztizkoa</b>	<b>%/guztizkoa</b>
300 eurora arte	88.281	75.032	163.313	% 29,9
301-900 €	75.986	64.189	140.175	% 25,7
901-1.800 €	57.068	36.916	93.984	% 17,2
1.801-3.000 €	42.930	31.647	74.577	% 13,7
3.001-4.500 €	19.089	12.807	31.896	% 5,9
4.501-6.000 €	20.148	14.977	35.125	% 6,4
6.001-7.200 €	2.503	1.115	3.618	% 0,7
7.201-8.000 €	1.024	440	1.464	% 0,3
8.001-24.250 €	641	303	944	% 0,2
.250 € baino gehiago	137	86	223	% 0,0
<b>Guztizkoa</b>	<b>307.807</b>	<b>237.512</b>	<b>545.319</b>	<b>% 100,1</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

2006an onartutako Euskadiko Gizarte Aurreikuspen Osagarriaren Planaren arabera, urteko soldata gordinaren % 6ko urteko ekarpenak egin behar dira 37 urtez, erretiroa hartu aurreko soldataren % 20ren baliokidea den pentsioa lortzeko.

BGAE-ek Estatistika eta Kontabilitate Dokumentazioaren (EKD) ekarpen-tarteari buruzko atal espezifikoan emandako datuen arabera, bazkideen erdiak baino gehiagok (% 56) 900 €-tik beherako ekarpenak egin zituen (% 53, gizonetzkoek; % 59, emakumezkoek). Bazkideen kolektiboaren % 27k egin ditu 1.800 €-tik gorako ekarpenak.

Enplegu-planen esparruan, bazkideen % 34k egiten du 1.800 €-tik gorako ekarpena. 1.800 euroko erreferentziako ekarpen hori urteko 30.000 euroko soldata gordinaren % 6 da.



Bestalde, banakako planetan, bazkideen % 77k urtean 1.800 €-tik beherako ekarpenak egiten ditu, eta ehuneko hori % 87ra igotzen da urteko 3.000 €-ra arteko ekarpenak egiten dituzten bazkideak kontuan hartuz gero.

Horri dagokionez, estatuak bere banakako aurreikuspen-sistemari egindako ekarpenen muga finantzarioa eta fiskala pixkanaka murrizteko erabakia hartu du, pentsio-planen bidez egituratuta; hori horrela, urteko 1.500 €-tan finkatu du 2022tik aurrera.

#### *1.4.2.2. Ekarpenen zerga-gastua*

Eusko Jaurlaritzaren Zerga Administrazioiko Zuzendaritzak emandako 2020. urteari buruzko azken datu fiskalen arabera, erdia baino gehiago, aurreikuspen-planetarako ekarpenak aplikatu ziren aitortzenen % 52, alegia, 30.000 €-tik beherako likidazio-oinarriak zituzten zergadunenak ziren. Kolektibo horren gastu fiskala BGAE-etan egindako ekarpenengatiko guztizko gastu fiskalaren heren bat izan da (hau da, % 35).

42.000 €-tik beherako likidazio-oinarriak dituzten zergadunak kontuan hartuta, zergadunen ehunekoa % 78ra iristen da, eta gastu fiskalaren % 63 eragin zuten. Bestalde, aitortzaileen % 10ek (56.400 €-tik gorako likidazio-oinarria dutenak) BGAE-etara egindako ekarpenengatiko gastu fiskalaren % 21 eragin zuen.

Bestalde, PFEZaren zerga-oinarrian izandako batez besteko murrizketa 2.001 € izan zen 2020an, baina, batez besteko murrizketa hori bikoiztu egiten da (4.187 €) 56.400 €-tik gorako likidazio-oinarria duten aitortzaileen kasuan. Batez besteko murrizketa hori 1.363 €-koa da 30.000 €-tik beherako likidazio-oinarria duten aitortzaileen kasuan. Azken batez besteko ekarpen hori 30.000 €-ko batez besteko soldataren % 4,54 da.



## 10. koadroa

ERRENTA-MAILAK (Likidazio-Oinarria) NIVELES DE RENTA (Base Liquidable) (€)	PFZ. EUSKAL AE / 2020 / IRPF. C.A. EUSKADI ZERGA-OINARRI OROKORRAREN MURRIZKETAK / REDUCCIONES DE LA BASE IMPONIBLE GENERAL												
	Zerga-Oinarri Orokorra Base Imponible Global Zenbatekoa Importe	MURRIZKETAK / REDUCCIONES						Aurreko urteetako likidazio- oinarri negatiboak Bases liquidables negativas de años anteriores		Likidazio-Oinarri Orokorra Base Liquidable General			
		BGAE-tarako ekarpenak Aportaciones EPSV		Baterako zerga- ordainketagatiko murrizketa Reduc. Trib. Conjunta		Kontentsazioko pentsioak Pensiones compensatorias		Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe
		Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe	Kop. Nº	Zenbat. Importe						
0	-	2.400	59.475	4.160	3.493	6.867	20.506	40	399	56	297	31.473	36.568
2.400	-	3.600	54.735	1.914	1.666	1.812	7.505	9	54	24	104	15.796	45.584
3.600	-	4.800	105.567	2.457	2.182	2.794	11.691	15	63	12	42	21.973	91.695
4.800	-	6.000	168.058	3.036	2.708	3.276	13.619	18	98	12	74	28.979	151.674
6.000	-	8.400	460.747	8.563	8.256	10.434	43.928	69	310	28	166	57.919	408.227
8.400	-	10.800	564.892	10.153	10.964	12.171	51.204	92	462	30	152	53.505	502.203
10.800	-	13.200	899.294	14.620	16.667	15.558	65.616	157	885	24	110	69.917	816.069
13.200	-	15.600	1.153.096	17.948	20.574	16.656	70.493	151	835	16	59	75.779	1.061.154
15.600	-	18.000	1.457.484	21.720	26.042	16.582	70.205	182	1.077	13	42	83.016	1.360.170
18.000	-	20.400	1.624.680	23.766	30.920	15.582	66.079	180	1.091	22	97	81.635	1.526.516
20.400	-	22.800	1.680.944	24.185	33.788	14.603	62.019	205	1.401	12	31	75.302	1.583.710
22.800	-	25.200	1.654.554	24.350	37.452	13.314	56.573	209	1.339	6	26	66.746	1.559.180
25.200	-	27.600	1.665.708	24.171	40.883	12.657	53.819	209	1.337	14	55	61.172	1.569.627
27.600	-	30.000	1.704.271	24.495	44.622	12.369	52.657	156	892	13	37	57.304	1.606.113
30.000	-	32.400	1.944.476	23.837	45.875	16.032	68.655	144	763	9	31	60.406	1.829.154
32.400	-	34.800	2.061.071	23.810	47.771	7.552	31.883	105	589	6	24	59.990	1.980.820
34.800	-	37.200	1.557.336	21.999	46.002	6.308	26.593	82	425	9	71	42.653	1.484.245
37.200	-	39.600	1.289.818	19.654	42.093	4.776	20.127	80	465	6	7	33.233	1.227.139
39.600	-	42.000	1.074.950	16.174	36.609	3.625	15.324	61	358	5	3	26.256	1.022.660
42.000	-	44.400	853.327	12.482	30.070	2.959	12.490	58	371	3	6	19.784	810.396
44.400	-	46.800	697.492	9.725	24.915	2.404	10.146	45	293	2	13	15.375	662.159
46.800	-	49.200	580.710	7.766	21.549	1.953	8.236	30	181	3	7	12.214	550.746
49.200	-	51.600	498.572	6.401	19.051	1.652	6.964	31	258	1	1	10.031	472.301
51.600	-	54.000	430.255	5.375	16.634	1.400	5.901	26	201	3	8	8.288	407.517
54.000	-	56.400	382.017	4.603	14.762	1.218	5.145	19	123	3	10	7.052	362.025
56.400	-	58.800	343.129	3.983	13.445	1.030	4.349	26	220	2	7	6.068	325.137
58.800	-	61.200	310.018	3.566	12.754	882	3.723	12	61	2	27	5.301	293.453
61.200	-	63.600	284.897	3.175	11.244	785	3.311	15	124	1	11	4.692	270.214
63.600	-	66.000	264.139	2.836	10.357	738	3.124	12	103	0	0	4.209	250.555
66.000	-	72.000	568.452	5.841	22.869	1.508	6.369	33	284	1	1	8.528	539.035
72.000	-	78.000	457.827	4.440	18.159	1.121	4.735	29	244	4	35	6.381	434.655
78.000	-	84.000	364.320	3.318	14.111	799	3.379	15	118	1	1	4.766	346.711
84.000	-	90.000	290.214	2.425	10.714	656	2.782	13	143	1	1	3.583	276.580
90.000	-	120.000	786.216	5.752	26.756	1.691	7.173	48	491	2	3	8.726	751.899
120.000	-	150.000	364.741	2.131	10.764	717	3.052	29	348	2	17	3.312	350.577
150.000	-	180.000	212.063	1.038	5.340	404	1.725	14	310	0	0	1.668	204.688
> 180.000	-		988.708	2.390	14.733	944	4.036	57	1.083	2	0	4.037	968.897
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>			<b>29.858.254</b>	<b>398.259</b>	<b>796.794</b>	<b>215.829</b>	<b>905.135</b>	<b>2.676</b>	<b>17.797</b>	<b>350</b>	<b>1.575</b>	<b>1.137.069</b>	<b>28.140.055</b>

Iturria: Zerga Administrazioako Zuzendaritza

### 1.4.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen kontingentziatikiko prestazioak

#### 1.4.3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE GUZTIEN bazkideen kontingentziatikiko prestazioak

## 11. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Erretiroa	27.221	13.832	41.053	354.276.808,44	142.284.701,44	496.561.509,88
Ezintasun Iraunkorra	5.100	1.799	6.899	35.622.324,39	12.286.585,02	47.908.909,41
Mendekotasuna	30	27	57	587.642,45	188.727,68	776.370,13
Iraupen Luzeko Langabezia	303	240	543	1.355.117,20	1.027.420,41	2.382.537,61
Gaixotasun larria	12	4	16	84.665,74	33.577,23	118.242,97
Heriotza	6.188	17.605	23.793	27.596.419,21	92.103.727,77	119.700.146,98
<b>Guztizkoa</b>	<b>38.854</b>	<b>33.507</b>	<b>72.361</b>	<b>419.522.977,43</b>	<b>247.924.739,55</b>	<b>667.447.716,98</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2022. urtean aurreikuspen-planak zituzten BGAE guztiek prestazioetan ordaindutakoaren % 74 erretiro-kontingentziarekin lotuta egon da, eta ordaindutakoaren % 18, erakundearen sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso dute onuradunek. Bi kontingentzia horiek BGAE-en prestazioetako guztizko gastuaren % 92 hartzen dute. Hala ere, ez da gutxietsi behar BGAE-ek herritarren egoera ekonomiko txarrei aurre egiteko

betetzen duten zeregina; izan ere, beste gertakizun batzuetatik eratorritako prestazioak ematen dituzte, hala nola langabezia, ezintasun iraunkorra, mendetasuna edo gaixotasun larria.

Prestazio kopuruari dagokionez, prestazioen % 46 emakumeek jaso dute, eta gizonek, % 54. Bestalde, prestazioen zenbateko guztizkoaren % 63 (419.522.977 €) gizonek jaso dute, eta emakumeek, berriz, prestazioen zenbatekoaren % 37 (247.924.740 €). Jasotako prestazioen aurreikuspen-planeko batez besteko zenbatekoa **9.224 €-koa** izan da. Baina azterketa sexuaren arabera eginez gero, gizonek jasotako batez besteko zenbatekoa (10.797 €) % 46 handiagoa da emakumeek jasotakoa baino (7.399 €).

#### 1.4.3.2. Enpleguko BGAE-etako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

##### 12. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Erretiroa	18.443	7.745	26.188	260.951.423,62	90.009.817,14	350.961.240,76
Ezintasun Iraunkorra	4.105	1.416	5.521	27.215.857,10	9.082.483,33	36.298.340,43
Mendekotasuna	2	0	2	872,36	0,00	872,36
Iraupen Luzeko Langabezia	116	112	228	446.722,89	385.270,31	831.993,20
Gaixotasun larria	3	0	3	5.134,02	0,00	5.134,02
Heriotza	988	7.925	8.913	7.842.527,87	68.857.969,70	76.700.497,57
<b>Guztizkoa</b>	<b>23.657</b>	<b>17.198</b>	<b>40.855</b>	<b>296.462.537,86</b>	<b>168.335.540,48</b>	<b>464.798.078,34</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Enpleguko modalitateko BGAE-en aurreikuspen-planek prestazioetan izandako gastu osotik, % 76 erretiro-kontingentziarekin lotuta egon da, eta % 17, erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso dute onuradunek. Ikusten denez, aurreikuspen-plan guztien portaeraren berdina da ia. Enpleguko BGAE-en aurreikuspen-planen kasuan, bi kontingentzia horiek BGAE-en prestazioetako guztizko gastuaren % 93 hartzen dute.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 42 jaso dute, eta gizonek, % 58. Bestalde, prestazioen zenbateko guztizkoaren % 64 (296.462.538 €) gizonek jaso dute, eta emakumeek, berriz, % 36 (168.335.540 €).

Era berean, aurreikuspen-planetan jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **11.377 €-koa** izan da, aurreikuspen-plan guztien zenbatekoa baino handiagoa. Azterketa sexuaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoak (9.788 €) gizonek jasotakoa baino (12.532 €) askoz txikiagoa izaten jarraitzen du. Enpleguko BGAE-en aurreikuspen-planetan, murriztu egin da genero-arrakala aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Hala ere, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa emakumeena baino % 28 handiagoa da.

### 1.4.3.3. Enpleguko BGAE sektorialetako bazkideen kontingentziengatikoko prestazioak

#### 13. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa
Erretiroa	15.448	7.176	22.624	187.108.755,80	74.283.554,45	261.392.310,25
Ezintasun Iraunkorra	3.786	1.352	5.138	22.658.528,13	7.791.362,80	30.449.890,93
Mendekotasuna	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Iraupen Luzeko Langabezia	103	107	210	408.379,95	286.936,35	695.316,30
Gaixotasun larria	2	0	2	2.727,61	0,00	2.727,61
Heriotza	658	5.057	5.715	5.170.877,14	40.544.999,78	45.715.876,92
<b>Gutzizkoa</b>	<b>19.997</b>	<b>13.692</b>	<b>33.689</b>	<b>215.349.268,63</b>	<b>122.906.853,38</b>	<b>338.256.122,01</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azterketa estatistikoaren ondorioetarako, Lagunaro, Geroa, Elkarkidetza eta Itzarri sektorialak dira, beren aurreikuspen-planek enpresa multzo bat hartzen dutelako barruan (BGAE bat, Mondragon korporazioko kide diren kooperatibetarako; beste bat, Gipuzkoako hitzarmen kolektibo probintzial jakin batzuen mendeko diren enpresetarako; eta bi BGAE sektore publikoko langileentzako —bat foru- eta toki-administrazio langileentzat, eta bestea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileentzat—).

Aurrekoa kontuan hartuta, enpleguko BGAE sektorial guztiek (Lagunaro, Geroa, Elkarkidetza eta Itzarri) prestazioetan ordaindutakoaren % 77 erretiro-kontingentziarekin lotutakoa izan da, eta ordaindutakoaren % 14, erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso dute onuradunek. Hortaz, enpleguko aurreikuspen-plan guztien antzeko portaera dute.

Kopuruari dagokionez, emakumeek prestazioen % 41 jaso zituzten, eta gizonek % 59. Bestetik, gizonek jaso dute prestazioen zenbatekoaren % 64 (215.349.269 €); emakumeek, berriz, % 36 (122.906.853 €).

Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **10.041 €-koa** izan da, enpleguko aurreikuspen-plan guztien zenbatekoa baino txikiagoa. Azterketa sexuaren arabera eginez gero, emakumeek 2022an enpleguko BGAE sektorialetan jasotako batez besteko zenbatekoa (8.977 €) gizonek jasotakoa (10.769 €) baino % 20 txikiagoa izan zen.

Enpleguko BGAE sektorialetan dagoen genero-arrakala ehuneko 8 puntu murriztu da, enpleguko BGAE guztiek izan duten portaerari dagokionez.





#### 1.4.3.4. Enpleguko BGAE sektorial ez-publikoetako bazkideen kontingentziengatik prestazioak

##### 14. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa
Erretiroa	11.088	4.207	15.295	153.496.956,25	48.926.632,37	202.423.588,62
Ezintasun Iraunkorra	2.558	747	3.305	16.746.482,55	4.783.554,52	21.530.037,07
Mendekotasuna	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Iraupen Luzeko Langabezia	88	65	153	287.129,33	144.522,38	431.651,71
Gaixotasun larria	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Heriotza	356	3.524	3.880	3.833.544,59	36.652.054,37	40.485.598,96
<b>Gutzizkoa</b>	<b>14.090</b>	<b>8.543</b>	<b>22.633</b>	<b>174.364.112,72</b>	<b>90.506.763,64</b>	<b>264.870.876,36</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enplegu-modalitateko BGAE sektorial ez-publikoek (Lagunaro eta Geroa) prestazioetan egindako guztizko gastuaren % 76 erretiro-kontingentziarekin lotutakoa izan da, eta ordaindutakoaren % 15 erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso dute onuradunek.

Emakumeek prestazio kopuru osoaren % 38 jaso zuten, eta gizonek % 62. Bestetik, prestazioen zenbatekoaren % 66 (174.364.112,72 €) gizonek jaso dute, eta emakumeek, berriz, % 34 (90.506.763,64 €).

Enpleguko BGAE sektorial ez-publikoen kasuan, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **11.703 €** izan zen, enpleguko BGAE sektorial guztietarako lortzen den zenbatekoa baino handiagoa; izan ere, Lagunaro BGAE pentsio osagarri nahikoak ordaintzeko zehaztutako prestazio-sistema bat duen BGAE bat da.

Azkenik, sexuaren araberako azterketa eginez gero, berriz ere agerian geratzen da dagoen desberdintasuna; izan ere, gizonek jasotako batez besteko zenbatekoa (12.375 €) emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa (10.594 €) baino % 17 handiagoa da.

2022ko ekitaldian, publikoak ez diren enpleguko BGAE sektorialen genero-arrakala ehuneko hamaika puntu murriztu zen, enpleguko BGAE-ek izandako portaerarekin alderatuta.



### 1.4.3.5. Enpleguko BGAE sektorial publikoetako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

#### 15. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa
Erretiroa	4.360	2.969	7.329	33.611.799,55	25.356.922,08	58.968.721,63
Ezintasun Iraunkorra	1.228	605	1.833	5.912.045,58	3.007.808,28	8.919.853,86
Mendekotasuna	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Iraupen Luzeko Langabezia	15	42	57	121.250,62	142.413,97	263.664,59
Gaixotasun larria	2	0	2	2.727,61	0,00	2.727,61
Heriotza	302	1.533	1.835	1.337.332,55	3.892.945,41	5.230.277,96
<b>Gutzizkoa</b>	<b>5.907</b>	<b>5.149</b>	<b>11.056</b>	<b>40.985.155,91</b>	<b>32.400.089,74</b>	<b>73.385.245,65</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enplegu-modalitateko sektore publikoko BGAE-ek (Elkarkidetza eta Itzarri) prestazioetan egindako gastu osotik, % 80 erretiro-kontingentziarekin lotuta egon da, eta % 7 erakundean sartutako pertsona baten heriotzaren ondorioz jaso dute onuradunek.

Prestazio kopuruari dagokionez, emakumeek gutzizkoen % 47 jaso dituzte, eta gizonek, % 53. Bestetik, prestazioen zenbateko gutzizkoaren % 56 (40.985.156 €) gizonek jaso dute, eta emakumeek, berriz, prestazioen zenbatekoaren % 44 (32.400.090 €). Era berean, jasotako prestazioen batez besteko zenbatekoa **6.638 €-koa** izan zen, enpleguko BGAE sektorial gutzietarako lortu zen zenbatekoa baino txikiagoa, Itzarriren aurreikuspen-sistemaren heltze-maila txikiagoa delako gertatu da hori nagusiki.

Azterketa sexuaren arabera eginez gero, emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoak (6.293 €) gizonek jasotakoa baino (6.938 €) txikiagoa izaten jarraitzen du. Enpleguko BGAE sektorial publikoen kasuan, genero-arrakala nabarmen murrizten da, % 10ekoa baita.

### 1.4.3.6. Banakako BGAE-etako bazkideen kontingentziengatiko prestazioak

#### 16. koadroa

Kontingentzia	Bazkide pasibo edo onuradun kopurua			Zenbatekoa (€)		
	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa	Gizonak	Emakumeak	Gutzizkoa
Erretiroa	8.765	6.085	14.850	93.273.247,96	52.273.084,29	145.546.332,25
Ezintasun Iraunkorra	995	383	1.378	8.406.467,29	3.204.101,69	11.610.568,98
Mendekotasuna	28	27	55	586.770,09	188.727,68	775.497,77
Iraupen Luzeko Langabezia	186	128	314	836.810,73	642.150,10	1.478.960,83
Gaixotasun larria	9	4	13	79.531,72	33.577,23	113.108,95
Heriotza	5.200	9.668	14.868	19.753.891,34	22.906.984,20	42.660.875,54
<b>Gutzizkoa</b>	<b>15.183</b>	<b>16.295</b>	<b>31.478</b>	<b>122.936.719,13</b>	<b>79.248.625,19</b>	<b>202.185.344,32</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Banakako BGAE-ek 2021ean prestazioetan izandako gastu osotik, % 72 erretiro-kontingentziarekin lotuta egon da, eta % 21 ohiko bazkide baten heriotzaren ondorioz jaso dute onuradunek.

Bestetik, prestazioen zenbateko gutzizkoaren % 61 (122.936.719,13 €) gizonek jaso dute, eta emakumeek, berriz, % 39 (79.248.625,19 €). Era berean, jasotako prestazioen batez

besteko zenbatekoa **6.423 €-koa** izan zen, enpleguko BGAE-en kasuan nahiz planak dituzten BGAE guztien kasuan lortu zen zenbatekoa baino txikiagoa.

Azterketa sexuaren arabera eginez gero, emakumezkoek jasotako batez besteko zenbatekoa (4.863 €) gizonetzkoek jasotakoa baino (8.097 €) askoz txikiagoa da oraindik ere, beste behin.

Banakako modalitateko BGAE-etan, genero-arrakala enpleguko BGAE-etan dagoenaren bikoitza baino handiagoa da; izan ere, banakako modalitatean, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa emakumeek jasotako batez besteko zenbatekoa baino % 66 handiagoa da.

#### 1.4.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en prestazioak kobratzeko modua

##### 17. koadroa

Planak dituzten BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	31.545	286.421.352	9.080	757
Finantza-errenta	14.425	74.917.187	5.194	433
Kapitala	12.604	283.950.682	22.529	-
<b>Guztizkoa</b>	58.574	645.289.221	-	-

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Atal honetan, prestazioak nola kobratu diren aztertuko dugu, oso alderdi kualitatibo garrantzitsua baita. Ildo horretan, aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztiek ordaindutako prestazioen zenbateko osoaren (667.447.716,98 €) % 43 errenta aktuarial gisa kobratu da (286.421.352 €); % 11, finantza-errenta gisa (74.917.187 €), eta horrek esan nahi du **prestazioen zenbatekoaren % 54 errenta gisa jasotzen dela** eta % 43 kapital gisa (283.950.682 €). Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 97 dira. Gainerako % 3a (22.158.496,41 €) aurretik aipatu gabeko beste modu batzuetan kobratu da, modu mistoan, esaterako.

Kapital moduan kobratzeko moduak ehuneko bi puntuko igoera izan du 2021eko ekitaldiarekin alderatuta. Horrek esan nahi du BGAE-en esparruan jasotako zenbatekoaren ia erdia kapital forman izan dela (% 43), erakunde horien xedea Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen aldizkako pentsioak behar beste zenbatekoz osatzea denean. Portaera horrek okertu egiten du BGAE-ek prestazioak errenta gisa kobratzeko duten lehentasunezko helburua.

Gaur egun kapital gisa jasotako prestazioei ematen zaien zerga-tratamendua errenta gisako tratamendua baino onuragarriagoa da, eta baliteke horrek eragitea prestazio osagarriak jasotzen dituzten pertsonen jarduteko modu hori.

### 1.4.5. Enpleguko BGAE-en prestazioak kobratzeko modua

#### 18. koadroa

Enpleguko BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	28.927	283.586.186	9.804	817
Finantza-errenta	5.170	38.421.868	7.432	619
Kapitala	5.967	126.535.063	21.206	-
<b>Guztizkoa</b>	<b>40.064</b>	<b>448.543.117</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko BGAE-en multzoan, prestazioen % 97 (448.543.117 €) errenta aktuarial, finantza-errenta eta kapital gisa kobratu ziren, prestazioen kobrantza osotik (464.798.078,34 €). Aurreko datuetan sakonduta, ondorioztatzen da enpleguko BGAE-en prestazioen zenbateko osoaren % 61 errenta aktuarial gisa egin dela (283.586.186 €) eta % 8 finantza-errenta gisa (38.421.868 €). Hortaz, **prestazio guztien % 69 errenta gisa kobratu da**, eta % 27, berriz, kapital gisa (126.535.063 €). Gainerako % 3a beste modu batzuetan kobratu da, modu mistoan, esaterako (16.254.962 €).

Ikus daitekeenez, enpleguko BGAE-en kasuan, kobratzeko modu nagusia errenta aktuariala da (kasuen erdiak baino gehiago). Kontuan hartzen badugu, halaber, finantza-errenta gisa kobratutakoa, prestazioen zenbateko osoaren bi heren errenta moduan jasotzen dira, eta hori bat dator BGAE-en helburu sozialarekin.

### 1.4.6. Banakako BGAE-en prestazioak kobratzeko modua

#### 19. koadroa

Banakako BGAEak kobratzeko modua	Bazkide pasiboen kopurua	Zenbatekoa (€)	Urteko batez besteko zenbatekoa (€)	Hileko batez besteko zenbatekoa (€)
Errenta aktuariala	2.618	2.835.165	1.083	90
Finantza-errenta	9.247	36.376.978	3.934	328
Kapitala	9.395	157.069.666	16.718	-
<b>Guztizkoa</b>	<b>21.260</b>	<b>196.281.810</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Hori banakako BGAE-ekin egiten badugu prestazioen zenbateko osoaren gainean, ondorioztatzen da **% 78 kapital gisa kobratzen dela**, % 18 finantza-errenta gisa eta % 1 errenta aktuarial gisa. Hortaz, % 19 soilik jaso da errenta gisa. Kobratzeko hiru modu horiek prestazioen kobrantza osoaren % 97 dira. Gainerako % 3a beste modu batzuetan kobratu da, modu mistoan, esaterako.

Enpleguko BGAE-etan ez bezala, banakako BGAE-etan gaur egun nagusi den kobratzeko modua ez dator bat zati handiena errenta moduan kobratzeko helburuarekin.

Baina azken hiru ekitaldietan egiaztatu da banakako BGAE-etako bazkideak prestazioa errenta aktuarial gisa kobratzea eskatzen hasi direla pixkanaka. Hain zuzen ere, errenta

aktuarial gisa jasotako batez besteko hileko zenbatekoa, gutxi gorabehera, ezkontidea kargura egonda Gizarte Segurantzak 2022an ematen duen erretiro-pentsioaren hileko gutxieneko zenbatekoaren % 10ekoa da.

## 1.5. Erreskateak aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan

### 20. koadroa

Erreskateak	BGAE elkartuak	Enpleguko BGAEak	Banakako BGAEak	BGAEak, guztira
<b>Kopurua</b>	4 % 0,03	73 % 0,47	15.448 % 99,50	15.525
<b>Zenbatekoa (€)</b>	39.691,55 % 0,03	1.218.819,71 % 1,04	116.004.714,29 % 98,93	117.263.225,55

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

BGAE-ei aplikatu beharreko araudiak aukera ematen die bazkideei, bai banakako modalitatekoiei, bai BGAE elkartuen modalitatekoiei, eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko, baldin eta hamar urte baino gehiagoko antzintasuna badute. Enpleguko BGAE-ek, berriz, ez dute aukerarik ematen hamar urteko antzintasuna izateagatik erreskatea jasotzeko, salbuespen iragankor batekin: aurreikuspen-plan batzuetan bakarrik daukate eskubide ekonomikoak aurretiaz jasotzeko aukera hori, baldin eta otsailaren 23ko 5/2012 Legea (BGAE-ena) indarrean jarri zenean erreskaterako aukera jada jasota bazuten aurreikuspen-planetan.

Genero-ikuspegitik, pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da erreskateekin; hau da, 2022an, gizonen egin dituzte erreskateen % 56, baina jasotako zenbatekoa % 59 da.

## 1.6. Enpleguko BGAE-ek ematen duten babes-mailari buruzko ikuspegi orokorra

Jarraian, ariketa teoriko bat egingo da; hor, aurreko ataletan lortutako datu guztiak bilduko dira, BGAE-ek ematen duten babesaren nahikotasun-mailari buruzko ikuspegi orokorra izateko.

Kalkulu aktuariala enpleguko planen kasurako egin da, modalitate horretan ia ez dagoelako bikoiztasunik; nekez gertatuko da sistema borondatez kentzea eskubide ekonomikoak erreskatatuz, eta kobratzeko modu nagusia aldizkako errentak dira.

Honako hipotesi hauek kontuan hartuta: urtean egindako batez besteko ekarpena Enpleguko Gizarte Aurreikuspeneko Planei (1.486 €) eta ulertuz ekarpenak urtean % 1,5 igoko direla; zehaztutako ekarpenen enpleguko planetan dagoen *per capita* eskubide ekonomikoa (15.262 €); 65 urtetik beherako bazkideen batez besteko adina (47 urte); enpleguko planen modako inbertsio-joera (errenta finko mistoa), zeinak, halaber, kalkulatu den erretiro-datara bitarte % 2,5eko batez besteko errentagarritasuna lortzeko aukera emango duela, 67 urterekin hilean lortuko litzatekeen biziarteko eta itzuli beharrik gabeko pentsio iraunkorra 300 € ingurukoa izango litzateke (240 € 2022. urteko balioetan). Zenbateko hori 2021eko abenduan EAEn zegoen Gizarte Segurantzako sistemaren batez besteko erretiro-pentsioaren % 16 zen (1.543,82 €).

Beste ikuspegi batetik ikusita, pentsio osagarri horren zenbatekoa EAerako batez besteko soldata gordin gisa finkatu den 30.000 €-ko urteko soldata gordinaren % 10 izango litzateke. Estaldura-maila horrek ez luke beteko Euskadiko gizarte-aurreikuspen osagarriko planean ezarritako helburua; hots, azken soldataren % 20 osatzea.

### 1.7. Laburpena, generoaren ikuspegitik

Txostenaren atal honetan, laburbilduta, aurreko puntuetan deskribatutako zenbait desberdintasun jasotzen dira. Horrez gain, zenbait koadrotan jasoko da sexu bakoitzak BGAE-etako gobernu-organoetan duen partaidetza, bai eta BGAE-etako enplegatuen sexuaren arabera banaketa ere.

Emakumeak bazkide kopuru osoaren % 45 dira, eta ekitaldiko ekarpenen % 44 egin dute. Horrek esan nahi du, beste ekitaldi batean ere, emakumeen ekarpenak, osotasunean hartuta, bazkide kopuruari dagokionez duten banaketa portzentuala baino % 1 txikiagoak direla.

65 urtetik beherakoen kolektiboa bakarrik hartzen bada kontuan, aurreikuspen-planetako bazkideen batez besteko adina 49 urtekoa da. Batez besteko hori berdina da bai emakumeentzat, bai gizonentzat.

2022an ekarpenak egin dituzten pertsonen % 56k 900 € baino gutxiagoko ekarpenak egin dituzte. Emakumeen kasuan, ehuneko hori % 59koa izan da, eta gizonen kasuan, berriz, % 53koa.

2022an aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan ekarpenak egiten ari ziren pertsonen egindako ekarpenen aurreikuspen-planeko batez besteko zenbatekoa 1.443 €-koa izan da (1.560 € gizonen, eta zertxobait gutxiago emakumeen, 1.316 € zehazki). Gizonen batez besteko ekarpena emakumeena baino % 19 handiagoa da.

Prestazioei dagokienez, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako prestazioen zenbatekoaren % 63 (419.522.977 €) gizonen jaso dute; aitzitik, emakumeen zenbateko horren % 37 jaso dute (247.924.740 €), nahiz eta emakumeak izan BGAE-etan sartutako pertsonen % 45.

Jasotako prestazioen aurreikuspen-planeko batez besteko zenbatekoa **9.224 €-koa** izan da. Ildo horretan, gizonen jasotako batez besteko zenbatekoa (10.797 €) emakumeen jasotakoa baino (7.399 €) % 46 handiagoa da.

BGAE modalitatearen arabera azterketa egiten denean, emakumeen enpleguko BGAE guztietan jasotako batez besteko zenbatekoak (9.788 €) gizonena (12.532 €) baino txikiagoa izaten jarraitzen du, argi eta garbi. Enpleguko BGAE-en aurreikuspen-planetan, murriztu egin da genero-arrakala aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Hala ere, gizonen prestazioen batez besteko zenbatekoa emakumeena baino % 28 handiagoa da.

Publikoak ez diren enpleguko BGAE sektorialen genero-arrakala % 11 murriztu zen Enpleguko BGAE guztiek izandako portaerarekiko, % 17ra iritsi arte. Sektore publikoko

enpleguko BGAE-en kasuan, genero-arrakala nabarmen murrizten da, % 14koa baita. Banakako BGAE-en kasuan, genero-arrakala horrek bere horretan dirau eta % 66an kokatzen da.

Prestazioak kobratzeko modu guztietan, emakumeek gizonen baino zenbateko txikiagoak kobratzen dituzte; gizonen finantza-errenta gisa, errenta aktuarial gisa eta kapital gisa kobratu dituzten prestazioen batez besteko zenbatekoak % 24, % 25 eta % 36 handiagoak izan dira, hurrenez hurren.

Genero-ikuspegitik, pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da erreskateekin; hau da, 2022an, gizonen egin dituzte erreskateen % 56, baina jasotako zenbatekoa % 59 da.

Laburbilduz, BGAE-en esparruan nabarmentzen den genero-arrakala gizonen eta emakumeen enplegu berdina eta antzeko soldatak eskuratu ahal izateko dagoen desparekotasunaren ondorio da.

Bestalde, 21. koadroan, sexuaren arabera banakatuta, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako gobernu-batzarreko karguak betetzen dituzten pertsonen kopurua jasotzen da.

#### 21. koadroa

BGAEen gobernu-batzarreko karguak	Gizonak		Emakumeak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Presidenteak	55	% 80,9	13	% 19,1
Presidenteordeak	32	% 72,7	12	% 27,3
Idazkariak	42	% 64,6	23	% 35,4
Kideak	214	% 65,8	111	% 34,2
Beste batzuk	25	% 71,4	10	% 28,6
<b>Guztizkoa</b>	<b>368</b>	<b>% 68,5</b>	<b>169</b>	<b>% 31,5</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Aurreko koadroan agerian uzten da aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako gobernu-batzarreko kargudunen % 69 gizonak direla. Horren ondorioz, emakumeak kasuen % 19an baino ez dira presidente.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez, BGAE-ei aplikatzeko araudiak ezartzen du BGAE-ek ahaleginak egingo dituztela emakumezkoen eta gizonzkoen ordezkariak orekatua izan dadin gobernu-batzarretan, erakundeko gizonzkoen eta emakumezkoen ehunekoaren proportzioan.

Horri dagokionez, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua dela jotzen da sexu biek, gutxienez, % 40ko ordezkariak dutenean. Halaber, gobernu-batzarra hiru edo lau kidek osatzen dutenean, ordezkariak orekatua dela iritziko da sexu biek gutxienez ordezkari bat dutenean.

BGAE-en esparruan, aurreikuspen-planak dituzten erakundeen % 19an ez dira betetzen aurreko paragrafoetako irizpideak.



Azkenik, 22. koadroan, sexuaren arabera banakatuta, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako gobernu-batzarreko karguak betetzen dituzten pertsonen kopurua jasotzen da.

## **22. koadroa**

<b>Langile kopurua</b>	
Gizonak	26
Emakumeak	53
<b>Guztira</b>	<b>79</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

EAEko gizarte-aurreikuspen osagarria kudeatzeko aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan lanean diharduten pertsonen % 67 emakumeak dira.



## 2. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN ORAINTSUKO BILAKAERA

### 2.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en kopuruaren bilakaera

#### 23. koadroa

Aurreikuspen- planak dituzten BGAEak	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
Elkartua	2	2	% 0,00	2	0,00%	2	% 0,00
Enplegukoa	43	42	-% 2,33	42	0,00%	40	-% 4,76
Banakakoa	28	27	-% 3,57	27	0,00%	26	-% 3,70
<b>Guztizkoa</b>	<b>73</b>	<b>71</b>	<b>-% 2,74</b>	<b>71</b>	<b>0,00%</b>	<b>68</b>	<b>-% 4,23</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2022an, enplegu-modalitateko beste erakunde batek hartu ditu lehentasunezko enpleguko BGAE kalifikazioa lortzeko akordioak. Aurrekoaren ondorioz, egun enpleguko lehentasunezko 3 BGAE daude. Hala ere, serieak homogeenak izan daitezten, aipatu erakundeak enpleguko BGAE-en kategoria orokorrean sartu dira, ondorio estatistikaren ondorioetarako.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en kopurua txikitu egin da pixkanaka-pixkanaka 2017-2022 aldiaren. Banakako modalitateko BGAE-en kasuan, finantza-alorrean gertatu den fusio-prozesuak antzeko fusio-prozesua eragin du erakunde horietako bazkide sustatzaileek bultzatutako BGAE-etan. Enpleguko BGAE-en kopuruan murrizketa izan da BGAE batzuen bazkide babesleek hartutako erabakiengatik, beren aurreikuspen-planak eta langileak aurretik zegoen beste BGAE batean sartzea aukeratu dutelako, eskalako ekonomiez baliatzen saiatzeko.

### 2.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en balantze-zifraren bilakaera

#### 24. koadroa

Balantze Zifra (€)	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
	26.760.090.677,83	27.256.865.558,93	% 1,86	29.081.772.456,18	% 6,70	26.887.502.285,44	-% 7,55

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2022an, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en balantze-zifra 2.194 milioi eurotan txikitu da; % 7,55eko murrizketa izan du, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Ekarpen gisa sartutakoaren eta aurreikuspen-planen bidez BGAE-ek prestazioengatik eta erreskateengatik ordaindutakoaren arteko aldeak 50 milioi euroko saldo positiboa izan zuen.

Horregatik, izandako beherakadaren arrazoa da aurreikuspen-planen multzoaren urteko errentagarritasun negatiboa, finantza-merkatuen portaera negatibotik eratorria, hamarkadatan ikusitako interes-tasen igoera azkarrenaren ondorioz hasitako moneta-politikaren ondorioz, bai eta urte hasierako gatazka belikoaren ondorioz ere.

### 2.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkide kopuruaren bilakaera

#### 25. koadroa

Bazkideak	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
Gizonak	632.572	634.919	% 0,37	629.336	-% 0,88	631.165	% 0,29
Emakumeak	505.169	511.948	% 1,34	514.412	% 0,48	519.110	% 0,91
<b>Guztizkoa</b>	<b>1.137.741</b>	<b>1.146.867</b>	<b>% 0,80</b>	<b>1.143.748</b>	<b>-% 0,27</b>	<b>1.150.275</b>	<b>% 0,57</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2022an bazkide-kopuruak hazkunde txiki bat izan zuen. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da 25. koadroko datuak aurreikuspen-planak dituzten BGAE guztietako bazkideei buruzkoak direla, kontuan hartu gabe pertsona bat BGAE batean edota batean baino gehiagotan dagoen. Ildo horretatik, komeni da jarraian ñabardura hauek egitea.

**Bazkide kopurua** da aurreikuspen-planetan sartutako pertsonen kopurua; hau da, pertsona batek zenbat plan dituen sinatuta, horrenbeste aldiz zenbatzen da pertsona hori ondorio horietarako. 2022ko abenduaren 31n, 1.292.792 ziren (5. koadroko datua). Hala ere, kopuru horretan bikoiztasunak egon daitezke, pertsona berak aurreikuspen-plan bat baino gehiago izan baititzake sinatuta.

Bestalde, BGAE bakoitzaren esparruan, pertsona bat behin bakarrik zenbatzen da bazkide gisa, nahiz eta erakunde berean aurreikuspen-plan bat baino gehiago izan harpidetuta. Irizpide horri jarraikiz, **bazkide kopurua** 1.150.275 da; horixe da BGAE-etan dauden bazkideen guztizko kopurua, ondorio estatistikoetarako (4. koadroko datua). Halere, zifra horretan ere egon daitezke bikoiztasunak; izan ere, pertsona bat BGAE baten baino gehiagoren bazkide izan daiteke; hori horrela, pertsona bat zenbat erakundetan den bazkide, hainbeste aldiz zenbatuta egongo da zifra horretan.

Azkenik, BGAE-ek Bazkideen Fitxategi Orokorrean emandako datuei esker, aurreko zifra horietan gertatzen diren bikoiztasun guztiak ezabatu daitezke; hala, 2022ko abenduaren 31n aurreikuspen-planak zituzten BGAE-en bidez babestutako **bazkide desberdinen kopurua** 847.887 da (EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleria okupatuaren % 45, Eustaten arabera).

Bazkide desberdinen kopuruari buruzko zifra aurreko urteko kopuruarekin alderatuz gero, ondorioztatzen da 6.714 bazkide gehiago daudela BGAE guztietan 2022an.

### 2.4. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpen eta prestazioen bilakaera

#### 26. koadroa

Zenbatekoa (€)	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
Ekarpenak	775.113.076,59	799.416.273,04	% 3,14	842.254.879,46	% 5,36	834.646.550,15	-% 0,90
Prestazioak	660.591.971,11	647.347.901,61	-% 2,00	627.923.322,98	-% 3,00	667.447.716,98	% 6,29
<b>Aldea</b>	<b>114.521.105,48</b>	<b>152.068.371,43</b>	<b>% 32,79</b>	<b>214.331.556,48</b>	<b>% 40,94</b>	<b>167.198.833,17</b>	<b>-% 21,99</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Koadro honetan ez dira erreskateak azaltzen; izan ere, eskubide ekonomikoak aldeaz aurretik eskuratzea, BGAE-ei aplikagarri zaien araudian aurreikusitako kontingentziaren

bat gertatu gabe, ez da prestazio gisa kontatzen. Enpleguko BGAE jakin batzuen kuotak eta gizarte-prestazioak ere ez dira sartu, ez dietelako bigarren edo hirugarren zutabeen kontzeptuei erantzuten, arestian adierazi dugunez.

Hortaz, Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen prestazioen osagarri direnak emateko xedea duten gizarte-aurreikuspeneko planen ekarpenak eta prestazioak bakarrik hartu ditugu kontuan.

2022ko ekitaldian, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenen bidezko diru-sarrerak ia % 1 murriztu dira aurreko ekitaldikoekin alderatuta.

Dena den, aldagai horren portaera ez da homogenea aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en modalitatearen arabera. Horixe erakusten du hurrengo koadroak.

#### 2.4.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ekarpenen bilakaera

##### 27. koadroa

Ekarpenak (€)	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
Enplegukoa	346.730.808,16	368.490.200,17	% 6,28	399.840.299,03	% 8,51	418.266.185,66	% 4,61
Banakakoa	428.135.413,49	430.672.287,19	% 0,59	442.181.745,12	% 2,67	416.132.029,45	-% 5,89
Elkartuak	246.854,94	253.785,68	% 2,81	232.835,31	-% 8,26	248.335,04	% 6,66
<b>Guztizkoa</b>	<b>775.113.076,59</b>	<b>799.416.273,04</b>	<b>% 3,14</b>	<b>842.254.879,46</b>	<b>% 5,36</b>	<b>834.646.550,15</b>	<b>-% 0,90</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azterketak enpleguko eta banakako erakundeetan jarriko du arreta.

Ekarpenen zenbatekoaren 2022ko jaitsiera orokorra banakako BGAE-ei egindako ekarpenek izandako % 6ko jaitsierak azaltzen du, eta enpleguko BGAE guztiei egindako ekarpenak, berriz, % 5 igo ziren.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da enpleguko eta banakako modalitateetako BGAE-etan egindako ekarpenen zenbatekoa 2013. urteko ekarpenen zenbatekoa (844.681.265,34 €) baino txikiagoa dela oraindik ere; ekarpenen zenbateko handiena izan zuen urtea izan zen hura. Gerora ekarpenetan izan den beherakada hein batean 2012. urteaz geroztik izandako krisialdi ekonomikoarekin lotuta dagoela esan daiteke, herritarren aurrezte-ahalmena murriztea ekarri baitzuen.

#### 2.4.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en prestazioen bilakaera

##### 28. koadroa

Prestazioak (€)	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
Enplegukoa	442.133.317,45	450.540.856,89	% 1,90	446.294.908,08	-% 0,94	464.798.078,34	% 4,15
Banakakoa	217.954.801,31	196.650.752,07	-% 9,77	181.353.076,16	-% 7,78	202.185.344,32	% 11,49
Elkartuak	503.852,35	156.292,65	-% 68,98	275.338,74	% 76,17	464.294,32	% 68,63
<b>Guztizkoa</b>	<b>660.591.971,11</b>	<b>647.347.901,61</b>	<b>-% 2,00</b>	<b>627.923.322,98</b>	<b>-% 3,00</b>	<b>667.447.716,98</b>	<b>% 6,29</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azken lau ekitaldietan ordaindutako prestazioak 600 milioi euro baino gehiagokoak dira, eta aldi horretako batez besteko zenbatekoa 651 milioi eurokoa izan da.

Banakako modalitateko BGAE-en kasuan, azken ekitaldian, ordaindutako prestazioen zenbatekoa % 11 handitu da, modalitate horretan 2019tik gertatzen ari ziren murrizketak ez bezala.



## 2.5. BGAE-en erreskateen zenbatekoaren bilakaera

### 29. koadroa

Erreskateak (€)	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
	142.302.686,70	131.367.441,85	-% 7,68	114.838.801,81	-% 12,58	117.263.225,55	% 2,11

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

[1.5. Erreskateak aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etan](#) izeneko ataleko 20. koadroan ikusten denez, ia erreskate guztiak (% 99) banakako aurreikuspen-planetan egin dira.

Prestazioren bat sortu aurretik metatutako eskubide ekonomikoak osorik edo zati batean erreskatatzeagatik gizarte-aurreikuspen osagarriko sistematik ateratako guztizko zenbatekoa 117.263.225,55 €-koa izan da 2022an, aurreko urtearekin alderatuta % 2 hazi da. Banakako BGAE-en kasuan, urteko ordainketa guztien oso zati handia da.

Banakako BGAE-ek erreskateen bidez aurretiaz itzultako dirua, 2022an, gutxi gorabehera, haien ondarearen % 1 ekitaldian egindako ekarpenen % 28 eta modalitate horretako aurreikuspen-planek estalitako kontingentziak gertatzeagatik prestaziotan ordaindutakoaren % 57 izan da. Beste ikuspegi batetik ikusita, erreskateetan ordaindutako zenbatekoa prestazio eta erreskate kontzeptuengatik funtsen irteera osoaren % 36 da.

Erreskateen kopurua (erabatekoak eta partzialak) 15.525 izan zen 2022an, eta urte bereko erreskateen zenbatekoa, berriz, 7.553 €-koa.

Horri dagokionez, esan dezakegu BGAEak estaltzen duen kontingentziaren batean erori baino lehen eskubide ekonomikoak erabiltzen dituzten pertsonen kopurua adierazle ona dela sistemaren aurreikuspen-helburua zein neurritan betetzen ez den ikusteko eta beste helburu batzuekin —adibidez, finantzei eta zergei lotutako helburuekin— erabiltzen dela ikusteko.

Kapital gisa lortutako diru-sarrereri aldizkako errenta gisa jasotakoen aldean emandako zerga-tratamendu onuragarriak eragin dezake hein batean, agian, erabilera hori. Aurrekoa gorabehera, datuek agerian utzi dute orokorrean erreskateen zenbatekoa txikituz doala, nabarmen, 2014tik aurrera; 2022an erreskatatutakoa, adibidez, 2014an erreskatatutakoaren ia erdia da.



## 2.6. BGAE-en ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera

### 30. koadroa

Zenbatekoa (€)	2019	2020	± Δ %	2021	± Δ %	2022	± Δ %
Ekarpenak (1)	775.113.076,59	799.416.273,04	% 3,14	842.254.879,46	% 5,36	834.646.550,15	-% 0,90
Prestazioak (2)	660.591.971,11	647.347.901,61	-% 2,00	627.923.322,98	-% 3,00	667.447.716,98	% 6,29
Erreskateak (3)	142.302.686,70	131.367.441,85	-% 7,68	114.838.801,81	-% 12,58	117.263.225,55	% 2,11
<b>Aldea (1)-(2)-(3)</b>	<b>-27.781.581,22</b>	<b>20.700.929,58</b>	<b>-% 174,51</b>	<b>99.492.754,67</b>	<b>% 380,62</b>	<b>49.935.607,62</b>	<b>-% 49,81</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Azkenik, ekarpenak, prestazioak eta erreskateak batera aztertuz gero, aipatu behar da ekarpenen bidez bildutakoaren eta ordaindutako prestazioen eta aurreikuspen-planetan egindako erreskateen baturaren arteko aldeak saldo positiboa duela, hirugarren urtez jarraian, 2013az geroztik.

2022ko 50 milioi euroko saldo positiboa % 50 murriztu zen aurreko urteko saldoarekin alderatuta, eta eragin bikoitza izan du. Alde batetik, ekarpenen zenbatekoak behera egin du, eta, bestetik, prestazioen eta erreskateen zenbatekoek gora egin dute ekitaldi horretan.



## 3. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-EN DIMENTSIOA

### 3.1. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en dimentsio ekonomikoa

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek oso ondare handia kudeatzen dute. Termino makroekonomikoetan adierazita, 2022ko EAeko BPGd-aren % 31,6 da (84.973 milioi euro prezio arruntetan, Eustatek 2022ko ekainean argitaratutako datuaren arabera). Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ondarearen pisua, EAeko BPGd-aren aldean, aurreko urteko ehunekoa baino txikiagoa da.

Aldi berean, ratio horrek aditzera ematen du BGAE-ek Euskal Autonomia Erkidegoan duten ezarpena eta garrantzia nabarmen handiagoak direla (ia laukoitza) pentsio-funtsek Espainian dituztenak baino, azken horien ondarea BPGd-aren % 8,7 zela aintzat hartuta, Invercoren datuen arabera. Era berean, EB-14ko\* batezbestekoa (% 34,6) baino pixka bat txikiagoa da, 2021eko datuen arabera, bai eta urte horretako ELGAko batezbestekoa (% 60,5) baino txikiagoa ere.

BGAE-ek kudeatutako aktiboen bolumen hain handiak zeregin garrantzitsua ematen die finantzen ikuspegitik, ondarea inbertsio produktibora bideratzen lagun dezaketen tresnak direlako.

BGAE-en garrantziak behera egiten du gizarte-babesaren sisteman duten dimentsio erlatiboa aintzat hartzen badugu, finantza-dimentsioa aintzat hartu beharrean. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etara egindako urteko ekarpenak BPGd-ren % 1 ingurukoak dira. Ehuneko hori Italian egiten diren ekarpenen ehunekoen antzekoa da, eta gainditu egiten ditu Austrian, Alemanian, Luxenburgon edo Espainian egindakoak — % 0,3aren ingurukoak dira—. Dena den, aurreikuspen-sistema osagarrietarako urteko ekarpen gordinak BPGd-aren % 8,3ra iristen dira Suitzan, % 6,9ra Australian eta % 2,6ra Erresuma Batuan, 2021eko datuen arabera.

EAeko Gizarte Segurantzaren 2022. urteko datuak kontuan hartuta, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako gizarte-prestazioei egindako ekarpenen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta gizarte-prestazioetan egindako gastua, hurrenez hurren, osatu nahi den Gizarte Segurantzaren sistema publikoak urte horretan EAEn gizarte-kotizazioen ondorioz bildutakoaren % 12 inguru eta kotizaziopeko pentsioetan ordaindutakoaren % 6 izan dira, gutxi gorabehera.

---

\* EB-14: Herbehereak, Finlandia, Danimarka, Irlanda, Portugal, Espainia, Italia, Alemania, Belgika, Austria, Suedia eta Frantzia. Grezia eta Luxenburgoko ez dira sartzen.

**31. koadroa**

Planak dituzten BGAEak	Mila eurotan	BPGd-aren %	Gizarte Segurantzza (%)
Ekarpenak	834.647	% 1,0	% 12
Prestazioak	667.448	% 1,0	% 6
Ondarea	26.887.502	% 31,6	-

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

BGAE-ek gizarte-babesaren diru-sarreretan eta gastuetan duten paperean dagoen horren alde handiaren interpretazioak hainbat azalpen ditu. Horien artean, azpimarra daiteke sistema pribatua sistema publikoa baino gazteagoa dela edo hura bezain heldua ez dela, lehenengoaren orokortze falta eta bigarrenaren unibertsaltasun ia erabatekoa, edo ekarpen-mailak nahiko baxuak direla sistema publikora egindako kotizazioekin alderatuz.

### 3.2. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en tamaina, haien ondarearen arabera

**32. koadroa**

Ondarea MM (€)	Enpleguko BGAEak			Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Gutzizkoa
	Sektorialak	Enpresa	Gutzizkoa			
<10		10	10	3	1	14
10-150		21	21	15	1	37
150-300		3	3	3		6
>300	4	2	6	5		11
<b>Gutzizkoa</b>	4	36	40	26	2	68

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

BGAE-en tamainari dagokionez, haien ondarearen arabera, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en % 84k ondare txikiagoa dute batez besteko ondarea baino (395 milioi euro). Ondorioz, erakunde gutxi batzuek baino ez dute tamaina handia, eta horrek nolabaiteko minifundismoa (hau da, erakunde txiki asko) dakar, eta BGAE kopuru txikia bat (% 16) handiak dira.

Eta berdin gertatzen da enpleguko BGAE-etan nahiz banakakoetan. Beste ikuspegi batetik begiratuta, BGAE-en % 13k (25.000 bazkide baino gehiago dituztenek) aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en ondare osoaren % 80 dute.

### 3.3. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en tamaina, bazkide kopuruaren arabera

#### 33. koadroa

Bazkide kopurua	Enpleguko BGAEak			Banakako BGAEak	BGAE elkartuak	Gutzizkoa
	Sektorialak	Enpresa	Gutzizkoa			
< 250		9	9	2	1	12
250-1000		18	18	4		22
1001-5000		7	7	8	1	16
5001-25000		2	2	7		9
> 25.000	4		4	5		9
<b>Gutzizkoa</b>	4	36	40	26	2	68

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

2022an, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek 16.916 bazkide izan dituzte batez beste. Banakako BGAE-ek batez beste 23.841 bazkide zituzten; enplegukoek, berriz, 13.226. Banakako BGAE-etako batez besteko bazkide kopurua enpleguko batezbestekoaren ia bikoitza da.

Baina nahiko handiak diren neurri horiek «minifundismo» handia ezkutatzeko dute BGAE-en kolektiboan, batez ere enpleguko BGAE-en artean. Enpleguko BGAE gehien-gehienek, % 68k, 1.000 bazkide baino gutxiago dituzte, eta 6 erakundek soilik dituzte 5.000 bazkide baino gehiago (33. koadroan ikusten den bezala).

Banakako BGAE-en artean, tamainaren alde hori ez da hain larria; izan ere, banakako BGAE-en % 23k bakarrik dituzte 1.000 bazkide baino gutxiago. Bestalde, bostetik batek 25.000 baino gehiago ditu.

### 3.4. Enplegu-planen modalitateak, ekarpenen eta prestazioen erregimenaren eta enpresa anitzeko planen arabera

Ekarpenen eta prestazioen erregimenaren arabera, aurreikuspen-planak honela sailkatzen dira orokorrean: gizarte-aurreikuspeneko zehaztutako ekarpenen planak eta gizarte-aurreikuspeneko zehaztutako prestazioen planak.

Gizarte-aurreikuspeneko zehaztutako ekarpenen planak: aurretiaz zehazturik daukate bazkideen ekarpenak zenbatekoa izan behar duen, bai eta zenbateko hori nola zehaztu behar duten ere, baina ez du zerikusirik zuzenik eta berehalakorik etorkizunean jasoko duten prestazio zehatzarekin, eta prestazioaren zenbatekoa ez da aldeztu aurretik bermatzen.

Gizarte-aurreikuspeneko zehaztutako prestazioen planetan zehazten da bazkide pasiboek edo onuradunek jaso beharreko prestazioen zenbatekoa edo horiek nola zehaztu behar dituzten.

2022an, enpleguko 143 plan zeuden. Horietatik, 97 zehaztutako ekarpenen planak dira, eta 46 zehaztutako prestazioen planak; horrek esan nahi du hiru enpleguko aurreikuspen-planetatik bik zehaztutako ekarpena dutela.



Enpleguko aurreikuspen-plan guztietatik, 88 enpresa bakar batek sustatu ditu, eta gainerako 55 enpleguko planak enpresa batek baino gehiagok sustatu ditu.

Enpresa batek baino gehiagok sustatutako enpresa anitzeko enpleguko aurreikuspen-planen barnean, 11.779 enpresa daude sartuta (erakunde publikoak barne).

Enpresen Direktorio Zentralaren datuen arabera, EAEn, 2022. urtearen amaieran gutxienez soldatapeko bat eta aktibo zeuden lau enpresatik batek, gutxi gorabehera, langileen aldeko aurreikuspen-planak sustatzen dituzte.

### 3.5 Enpleguko aurreikuspen-sistemak, biztanleria okupatuari dagokionez

#### 34. koadroa

LH	Biztanleria okupatua - 2022	Enpleguko BGAEa duten langileak - 2022	BGAEa duten langileen %-a lurralde historikoko biztanleria okupatuaren guztizkoaren aldean eta EAE osoaren aldean
ARABA	143.800	29.005	% 20
BIZKAIA	497.000	79.557	% 16
GIPUZKOA	322.100	138.651	% 43
EAE	962.900	247.213	% 26

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Aurreko koadroko biztanleria okupatuari buruzko datua Eustatetik lortu da; enpleguko BGAEa duten langileei buruzkoa da BGAE-ek Bazkideen Fitxategi Orokorrean informatutako **bazkide aktiboei** dagokiena.

Biztanleriaren zahartzeak eragindako desoreka demografikoari aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzak gizarte-aurreikuspen osagarriko plan bat onetsi zuen, eta horrek berretsi egin zuen Gizarte Segurantzako lehen zutabe sendo baten ideia, eta guztiz EAEn eskumenekoak diren tresnen garapenarena, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen garapenarena, alegia.

Pentsioen Sistema Publikoak egun ematen duen babes-maila eta espero den bilakaera kontuan hartuta, ikusten da badagoela behar besteko marjina gizarte-aurreikuspen osagarria orokortzeko, pentsio publikoak osatzeko helburu bakarraz.

Plan horretan, adierazi zen orokortzeko helburua beteta egongo litzatekeela biztanleria okupatuaren % 70 lehentasunezko enpleguko aurreikuspen-planetan sartuko balitz.

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en dimentsio ekonomikoari buruzko 3.1 atalean, agerian gelditu da BGAE askok ondare handia kudeatzen dutela. Alabaina, datu makroekonomiko horrek ez du ezkutatu behar EAE oraindik oso urrun dagoela enpleguko gizarte-aurreikuspen osagarria orokortzeko helburua betetzetik; izan ere, gaur egun, biztanleria okupatuaren % 26k bakarrik du enplegu-aurreikuspeneko sistema osagarriren bat, eta lurralde historikoen arabera banaketa ez da orekatua.



Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak, erronka demografikoari trauma handirik gabe aurre egiten laguntze aldera, analizatzen eta proposamenak egiten dihardu oraindik zerga-tratamendu ona lortzeko enpleguko lehentasunezko sistema osagarri horientzat.

Era berean, kontuan hartu beharko da Estatuak, 2022ko uztailaren 1ean, onartu egin zuela enpleguko pentsio-planen bultzada arautzen duen ekainaren 30eko 12/2022 Legea.

Lege horrek erretirorako zehaztutako ekarpenen enplegu-sistemaren aurreikuspen-sistemek estalitako biztanleria areagotu nahi du, enpresaren eta langileen finantzaketa mistoarekin, negoziazio kolektibo sektorialaren bidez. Horretarako, hedapen hori gauzatzeko mekanismoak eta pizgarriak ezarri behar dira, langile guztientzako enplegu-aurreikuspeneko sistema horien unibertsaltasuna lortze aldera.

Estatuko lege honek berretsi egiten du komeni dela eta beharrezkoa dela lehentasunezko enplegu-sistema osagarrietarako mekanismoak eta pizgarriak ezartzea. Beraz, ausartak izateko erronka bat da, Euskadin enpleguaren gizarte-aurreikuspen osagarria orokortu nahian aurrera egiteko.

Bestalde, banakako BGAE-etan alta emanda duten pertsonen kopurua (aurreikuspenaren hirugarren zutabea) EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleriarekin erlazionatuz gero, kalkulatzen da EAEko 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren hiru pertsonatik bat, gutxi gorabehera, banakako BGAE batean sartuta dagoela.

Lurralde historikoaren araberako banakako sistema horren banaketa, ehunekoetan, honako hau da: % 14 Araban, % 52 Bizkaian eta % 34 Gipuzkoan.



## 4. BGAE-EN KUDEAKETA EKONOMIKOA

### 4.1. Banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna

Banakako modalitateko aurreikuspen-plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (aurreikuspen-planen ondarearen arabera) -% 10,63 izan zen 2022an, negatiboa, hain zuzen.

Aurreikuspen-planen errentagarritasun haztatua kalkulatzeko, BGAE-ek EKDn informatutako likidazio-balioak hartu dira kontuan.

Urte naturaleko aldi osoan indarrean egon diren banakako modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasunak Eusko Jaurlaritzaren webgunean daude argitaratuta. [Hemen](#) sakatuta sar zaitezke bertan.

#### 35. koadroa

##### Batez besteko errentagarritasun haztatua, banakako aurreikuspen-planetako inbertsio-orientazioaren arabera

Errenta aldakorra	-% 14,26
Errenta aldakor mistoa	-% 12,32
Beste batzuk	-% 9,59
Burtsa-indize bat edo errenta finkoko bat errepikatu, erreproduzitu edo erreferentziatzat hartzen du	-% 4,13
Errenta finko mistoa	-% 10,98
Errendimendu finkoko bermatuak	% 1,08
Errendimendu aldakorreko bermatuak	-% 10,27
Epe laburrerako errenta finkoa	-% 3,42
Epe luzerako errenta finkoa	-% 8,32
<b>Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira</b>	<b>-% 10,63</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Aurreko koadroan ageri diren datuak urte osoan indarrean egon diren banakako aurreikuspen-planen buruzkoak baino ez dira; horiek zer errentagarritasun lortu duten kalkulatu da.

Kategoria desberdinen arteko banaketa irizpide hauek kontuan hartuta egin da:

- Epe laburrerako errenta finkoa: Kategoria honetako planek ez dituzte errenta aldakorreko aktiboak barne hartuko euren eskurako zorroan, ezta eratorririk ere bere azpikoa errenta finkokoa ez denean. Zorroaren batez besteko iraupena bi urte edo gutxiago izango da.
- Epe luzerako errenta finkoa: Aurreikuspen-plan hauek sartuko dira kategoria horretan: eskurako zorroan ez dutenak ez errenta aldakorreko aktiborik, ez eta errenta finkoan oinarrituz bestelako deribaturik ere. Zorroaren batez besteko iraupena bi urtetik gorakoa izango da.
- Errenta finko mistoa: Kategoria horri atxikitako aurreikuspen-planek beren zorroaren % 30 baino gutxiago inbertituko dute errenta aldakorreko aktiboetan.
- Errenta aldakor mistoa: Kategoria horretan, beren zorroaren % 30etik % 75era bitarte errenta aldakorreko aktiboetan inbertitzen duten planak egongo dira.
- Errenta aldakorra: Kategoria horretan, beren zorroaren % 75 baino gehiago errenta aldakorreko aktiboetan inbertituta duten planak egongo dira atxikita.

- Bermatuak: Aurreikuspen-plan horiek etekin jakin baten kanpoko bermea dute, hirugarren batek emana.

2022an, banakako aurreikuspen-planek batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboa izan dute, -% 10,63koa, hain zuzen. Errenta aldakorrek planek urteko batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboa metatu dute (-% 14,26), eta, ondoren, errenta aldakor mistoko planek (-% 12,32). Bestalde, inbertsio-orientazio nagusiaren banakako aurreikuspen-planek, errenta finko mistoko planek, -% 10,98ko batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboa lortu dute.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da aurreikuspen-plan batean epe luzera eskuratzen den errentagarritasunak garrantzi erabakigarria duela metatutako azken kapitalaren zenbatekoan, eskubide ekonomikoko kontzeptuan. Horregatik, orientazio inbertitzailearen arabera, plan mota hautatzerakoan asmatzea funtsezkoa da pentsio osagarri egoki bat lortu ahal izateko.

Hautaketa hori, baina, ez da erraza pertsona gehienentzat. Horri dagokionez, bizi-zikloko inbertsio-estrategiak, BGAE-ek ongi diseinatuak, oso positiboak izan daitezke pentsio osagarri egoki bat lortzeko.

### 36. koadroa

Errentagarritasuna	Banakako planen kopurua
Negatiboa	180
% 0-5	24
% 5-10	1
> % 10	0

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

36. koadro honetan, banakako planen kopurua errentagarritasun-tarteen arabera banatzen da. Bertan, argi geratzen da banakako modalitateko 25 aurreikuspen-planek soilik lortu zutela errentagarritasun positiboa 2022an.

## 4.2. Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasuna

Enplegu-modalitateko aurreikuspen-plan guztien artean eskuratutako batez besteko errentagarritasun haztatua (aurreikuspen-planen ondarearen arabera) negatiboa izan zen 2022an, -% 5,28. Zehaztutako ekarpenen enplegu-planek -% 3,34ko batez besteko errentagarritasun haztatu negatiboa izan dute, eta zehaztutako prestazioen planek, -% 7,26koa.

Enplegu-modalitateko aurreikuspen-planen errentagarritasunak Eusko Jaurlaritzaren webgunean daude argitaratuta. [Hemen](#) sakatuta sar zaitezke bertan.

Bestalde, enpleguko BGAE-en guztizko ondarearen % 79 hartzen duten lau erakunde sektorialen (kudeaketa propioa dute) batez besteko errentagarritasun haztatua -% 6,04koa izan da. Dena den, kontuan izan behar da legediak enpleguko erakundeei



aukera ematen diela, baldintza jakin batzuk betez gero, errenta finko negoziagarriko zorroa kostu amortizatuaren irizpidea erabiliz kontabilizatzeko, eta, horrenbestez, errentagarritasun horiek ezin alderatu daitezke zuzenean banakako erakundeenekin, zorro hori merkatu-balioaren arabera kontabilizatu behar dutelako.

### 37. koadroa

#### Batez besteko errentagarritasun haztatua, enpleguko aurreikuspen-planetako inbertsio-orientazioaren arabera

Errenta aldakorra	-13,28%
Errenta aldakor mistoa	-10,79%
Beste batzuk	-4,70%
Errenta finko mistoa	-5,57%
Epe laburrerako errenta finkoa	-1,47%
Epe luzerako errenta finkoa	% 2,12
<b>Batez besteko errentagarritasun haztatua guztira</b>	<b>-% 5,28</b>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

### 4.3. Inbertsio-orientazioa, aurreikuspen-planetako bazkideen adinaren arabera

Irizpide orokor gisa, inbertsio motak desberdina izan behar du bazkideen adinaren arabera: zenbat eta gazteagoa izan bazkidea, orduan eta arriskutsuagoa inbertsioa, eta bazkidea zenbat eta helduagoa izan, inbertsioa orduan eta seguruagoa. Irizpide horren arabera, erretiroa hartzeko adina hurbildu ahala, inbertsioak seguruagoak izatea gomendatzen da, nahiz eta horren ordaina errentagarritasun handiagoko aukerak galtzea izan, zeren eta arriskuak kapital metatu guztiari eragiten baitio; gaztetan, aldiz, metatzeko urte asko gelditzen dira eta arriskatzeko kapitala txikiagoa da. Nolanahi ere, inbertitzeko irizpide nagusia errentagarritasun egokiak bilatzea izan behar da.

## 38. koadroa

Bazkideen adin-tarteak		Inbertsio-orientazioa							Beste batzuk	Gutzizkoa
		Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskuzkoa				
		Bermatuak	Epe laburrera ko errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra			
< 36 urte	Kopurua %	<b>366</b> % 0,30	<b>2.792</b> % 2,28	<b>2.298</b> % 1,88	<b>95.007</b> % 77,65	<b>13.958</b> % 11,41	<b>6.595</b> % 5,39	<b>1.342</b> % 1,10	<b>122.358</b> % 100,00	
36-45 urte	Kopurua %	<b>2.380</b> % 0,94	<b>17.177</b> % 6,78	<b>10.486</b> % 4,14	<b>179.917</b> % 70,98	<b>26.929</b> % 10,62	<b>11.356</b> % 4,48	<b>5.248</b> % 2,07	<b>253.493</b> % 100,00	
46-55 urte	Kopurua %	<b>8.849</b> % 2,27	<b>28.706</b> % 7,36	<b>16.761</b> % 4,30	<b>263.175</b> % 67,51	<b>43.964</b> % 11,28	<b>17.833</b> % 4,57	<b>10.540</b> % 2,70	<b>389.828</b> % 100,00	
56-65 urte	Kopurua %	<b>12.894</b> % 3,70	<b>28.259</b> % 8,11	<b>15.293</b> % 4,39	<b>233.002</b> % 66,89	<b>32.141</b> % 9,23	<b>14.553</b> % 4,18	<b>12.206</b> % 3,50	<b>348.348</b> % 100,00	
>65 urte	Kopurua %	<b>3.530</b> % 1,97	<b>21.368</b> % 11,95	<b>10.885</b> % 6,09	<b>115.237</b> % 64,46	<b>14.239</b> % 7,97	<b>7.405</b> % 4,14	<b>6.101</b> % 3,41	<b>178.765</b> % 100,00	
<b>Gutzizkoa</b>	Kopurua %	<b>28.019</b> % 2,17	<b>98.302</b> % 7,60	<b>55.723</b> % 4,31	<b>886.338</b> % 68,56	<b>131.231</b> % 10,15	<b>57.742</b> % 4,47	<b>35.437</b> % 2,74	<b>1.292.792</b> % 100,00	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Irizpide hori, oro har, bete egiten da aurreikuspen-planak dituzten BGAE-etako bazkideen kasuan. Horixe ikusten da, hain zuzen, 38. koadroari erreparatuz gero. Kontserbadoretzat hartu dugun inbertsioa (epe laburrerako errenta finkoan eta bermatuetan egindakoak batik bat) hazi egiten da, oro har, bazkidearen adinak gora egin ahala. 36 urte baino gutxiago dituzten bazkideek beren funtsen % 3 baino zertxobait gutxiago dituzte inbertitua kontserbatzailetzat jotako aukeretan, eta 65 baino gehiago dituztenek, berriz, askoz gehiago: funtsen % 14.

Hala ere, ezin da baieztatu gazteen inbertsioek profil egokia dutenik errentagarritasun handiago bat lortzeko asmoz beren gain hartzen duten arriskuari dagokionez, ez baita logikoa, lehen aipatutako irizpideari jarraikiz, 36 urte baino gutxiago dituzten bazkideek beren ondarearen % 3 inbertsio kontserbadoretan inbertitzea, eta ehuneko hori % 82raino iristea errenta aldakorra % 30eraino iristen ez den tokian inbertitutakoa kontuan hartzen badugu —hau da, arrisku ertaineko inbertsioak—. Ildo horretan, 56-65 urteko adin-tartea duen biztanleriaren portaera inbertitzailea antzekoa da. Azken kolektibo horrek errenta aldakorra % 30era iristen ez den aktiboetan % 83 inbertitu du.

Biztanleria gazteenaren funts-esleipen hori ez da eraginkorra, ez delako ia batere bereizten gazteen eta adinekoen orientazio inbertitzailea. Zehazki, 36 urtetik beherako bazkideen % 5ek soilik hautatu dituzte arrisku handieneko aurreikuspen-planak, non errenta aldakorrak aktiboen % 75etik gorako pisua duen.

Hala ere, azken ekitaldian, ia % 17ra iritsi da inbertsio arriskutsutzat jotako planen alde egin duten 36 urtetik beherakoen ehunekoa. Inbertsiorako erabaki horrek ez du alde handirik 56 eta 65 urte bitarteko pertsonen jokabidearekin; izan ere, kolektibo horren % 13k baino zertxobait gehiagok arriskutsutzat jotako zorroetan dute beren aurreikuspen-aurrezkoa. Baliteke inbertsio-erabaki horien ondorioz, azken kapital bat lortzeko behar den errentagarritasun bat sakrifikatzen egotea —kapital hori pensio nahiko bihurtzeko—.



Nabarmentzekoa da, beste behin, bazkideen % 69k, adina edozein izanda ere, errenta finko mistoko planak aukeratzen dituela, eta, horietan, errenta aldakorreko aktiboetan inbertitutakoa ez da % 30era iristen. Errenta finko mistoko planak aukeratzen dituzten bazkideen ehunekoa % 78 da 36 urtetik beherakoetan.

Aurreko guztiarekin lotuta, BGAE-ei aplika dakiekeen araudian jasotako **bizi-zikloko inbertsio-estrategien** erregulazioak inbertitzaileen arloan erabakiak hartzeko prozesu zailean lagundu nahi du. Estrategia horrek arrisku-maila pertsonen adinaren arabera esleitzen du, eta inbertsioak bizitza-aldi bakoitzean automatikoki doitzea ahalbidetzen du.

Ildo horretan, zehaztutako ekarpenen aurreikuspen-planak antolatzen dituzten banakako BGAE-ek, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, bizi-zikloaren inbertsio-estrategia bat eskaini behar diete erakundeko bazkideei, gutxienez hiru aurreikuspen-planekoa eta gehienez bost jasoko dituen, arrisku- eta etekin-konbinazio desberdinak izango dituztenak, kontuan izanda bazkideen adina, inbertsio-estrategia eta bazkide bakoitzaren egoera.

Banakako modalitateko BGAE-ek, 2022an, hiru planetik bat esleitu diote bizi-zikloaren strategiari. Bizi-zikloari esleitutako plan horiek banakako plan guztiei (238) dagokien ondare osoaren % 57 dute. Hauxe da bizi-zikloaren strategiara atxikitako planen inbertsio-orientazioaren araberako banaketa: Errenta aldakor mistoa 28, errenta finko mistoa 28, errenta aldakorra 11, epe laburreko errenta finkoa 11, epe luzeko errenta finkoa 2 eta bestelakoak 2 (guztira 82).

Aurrekoarekin batera, aipatu behar da gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla inbertsioen iraunkortasunarekin lotutako alderdiak. Horri dagokionez, inbertsio-erabakietan kontuan hartuko dira, besteak beste, gizartearen, ingurumenaren, etikaren edo gobernu korporatiboaren inbertsio-kontsiderazioak, enpresen jarduera, kudeaketa-eredua eta enpresa-jokabide arduratsuaren kodeak errespetatzea.

#### 4.4. Inbertsio-orientazioa, enplegu-planen bazkideen adinaren arabera

##### 39. koadroa

Bazkideen adin-tarteak		Inbertsio-orientazioa						Beste batzuk	Guztizkoa
		Kontserbadorea	Arrisku ertaina		Arriskuzkoa				
			Epe laburrerako errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra		
< 36 urte	Kopurua %	<b>193</b> % 0,24	<b>150</b> % 0,19	<b>78.162</b> % 97,96	<b>135</b> % 0,17	<b>46</b> % 0,06	<b>1.101</b> % 1,38	<b>79.787</b> 100%	
36-45 urte	Kopurua %	<b>818</b> % 0,64	<b>1.790</b> % 1,41	<b>119.840</b> % 94,07	<b>255</b> % 0,20	<b>248</b> % 0,19	<b>4.441</b> % 3,49	<b>127.392</b> 100%	
46-55 urte	Kopurua %	<b>1.214</b> % 0,75	<b>1.631</b> % 1,01	<b>148.929</b> % 92,29	<b>460</b> % 0,29	<b>348</b> % 0,22	<b>8.797</b> % 5,45	<b>161.379</b> 100%	
56-65 urte	Kopurua %	<b>1.256</b> % 1,05	<b>1.477</b> % 1,24	<b>105.774</b> % 88,59	<b>293</b> % 0,25	<b>210</b> % 0,18	<b>10.387</b> % 8,70	<b>119.397</b> 100%	
>65 urte	Kopurua %	<b>1.135</b> % 2,56	<b>2.349</b> % 5,29	<b>35.603</b> % 80,17	<b>50</b> % 0,11	<b>47</b> % 0,11	<b>5.225</b> % 11,77	<b>44.409</b> 100%	
<b>Guztizkoa</b>	Kopurua %	<b>4.616</b> % 0,87	<b>7.397</b> % 1,39	<b>488.308</b> % 91,72	<b>1.193</b> % 0,22	<b>899</b> % 0,17	<b>29.951</b> % 5,63	<b>532.364</b> 100%	

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko aurreikuspen-planetan, berriz ere aurreko urteetako portaera errepikatu da. Horrela, kolektiboaren % 92 errenta finko mistoko orientazio inbertitzailearen barnean sartuta dago, eta arriskutsutzat katalogatutako inbertsioa aukeratzen duen kolektiboaren ehunekoa, hau da, errenta aldakorra eta errenta aldakor mistoa aukeratzen duen kolektiboa ez da % 1era iristen.



## 4.5. Inbertsio-orientazioa, banakako planetako bazkideen adinaren arabera

### 40. koadroa

Bazkideen adin-tarteak	Inbertsio-orientazioa								
	Kontserbadorea		Arrisku ertaina		Arriskuzkoa		Beste batzuk	Guztizkoa	
	Bermatuak	Epe laburrera ko errenta finkoa	Epe luzerako errenta finkoa	Errenta finko mistoa	Errenta aldakor mistoa	Errenta aldakorra			
< 36 urte	Kopurua %	<b>366</b> % 0,86	<b>2.599</b> % 6,11	<b>2.147</b> % 5,04	<b>16.843</b> % 39,57	<b>13.822</b> % 32,47	<b>6.549</b> % 15,39	<b>241</b> 0,57%	<b>42.567</b> 100%
36-45 urte	Kopurua %	<b>2.380</b> % 1,89	<b>16.359</b> % 12,99	<b>8.696</b> % 6,91	<b>59.925</b> % 47,60	<b>26.613</b> % 21,14	<b>11.108</b> % 8,82	<b>807</b> 0,64%	<b>125.888</b> 100%
46-55 urte	Kopurua %	<b>8.849</b> % 3,88	<b>27.490</b> % 12,06	<b>15.128</b> % 6,64	<b>113.897</b> % 49,98	<b>43.281</b> % 18,99	<b>17.485</b> % 7,67	<b>1.743</b> 0,76%	<b>227.873</b> 100%
56-65 urte	Kopurua %	<b>12.894</b> % 5,64	<b>26.998</b> % 11,81	<b>13.805</b> % 6,04	<b>127.088</b> % 55,59	<b>31.655</b> % 13,85	<b>14.343</b> % 6,27	<b>1.819</b> 0,80%	<b>228.602</b> 100%
>65 urte	Kopurua %	<b>3.530</b> % 2,63	<b>20.223</b> % 15,08	<b>8.530</b> % 6,36	<b>79.546</b> % 59,31	<b>14.052</b> % 10,48	<b>7.358</b> % 5,49	<b>876</b> 0,65%	<b>134.115</b> 100%
<b>Guztizkoa</b>	Kopurua %	<b>28.019</b> % 3,69	<b>93.669</b> % 12,34	<b>48.306</b> % 6,36	<b>397.299</b> % 52,34	<b>129.423</b> % 17,05	<b>56.843</b> % 7,49	<b>5.486</b> 0,72%	<b>759.045</b> 100%

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Bestalde, banakako planetan, bazkideen % 16k kontserbadoretzat hartzen diren inbertsio-orientazioak aukeratzeko dituzte (aurreko urtean baino 2 puntu gutxiago), eta % 25 inguruk, errenta aldakorra eta errenta aldakor mistoa. Azkenik, bazkideen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 52) errenta finko mistoko inbertsio-orientazioak aukeratzeko dituzte.

## 4.6. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en inbertsioen egitura

### 41. koadroa

2022eko enpleguko eta banakako BGAEen inbertsioen egitura	ETXEKOA	EUROGUNEKO	EUROGUNEKO	GUZTIRA
		GAINERAKO HERRIALDEAK	K EZ DIREN HERRIALDEAK	
Errenta finkoa	5.120.876.265,25 €	5.426.926.987,32 €	2.382.646.116,99 €	12.930.449.369,56 €
Errenta aldakorra	783.385.505,89 €	1.259.564.186,27 €	855.836.410,59 €	2.898.786.102,75 €
Inbertsio-funtsak	2.572.261.399,39 €	6.371.475.343,28 €	374.443.847,35 €	9.318.180.590,02 €
Moneta-merkatuko funtsak	2.502.633,04 €	198.717.359,34 €	0,00 €	201.219.992,38 €
Errenta aldakorrekoko funtsak	2.027.516.361,99 €	3.128.519.015,23 €	163.797.041,30 €	5.319.832.418,52 €
Errenta finkoko funtsak	215.458.404,29 €	1.826.117.864,67 €	79.024.403,60 €	2.120.600.672,56 €
Funts mistoak	4.263.993,21 €	154.005.287,54 €	0,00 €	158.269.280,75 €
Higiezin funtsak	5.388.789,60 €	108.270.895,70 €	29.261.661,07 €	142.921.346,37 €
Inbertsio-funts libreak	76.338.328,67 €	655.067.032,17 €	21.933.057,88 €	753.338.418,71 €
Merkatu ez-monetarioko funtsak	240.792.888,59 €	300.777.888,63 €	80.427.683,50 €	621.998.460,72 €
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	1.142.608.806,26 €	13.884.101,94 €	32.019.156,02 €	1.188.512.064,22 €
Gainerako aktiboak	531.334.808,12 €	0 €	0 €	531.334.808,12 €
<b>Aktiboen guztizkoa</b>	<b>10.150.466.784,91 €</b>	<b>13.071.850.618,81 €</b>	<b>3.644.945.530,95 €</b>	<b>26.867.262.934,67 €</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko eta banakako BGAE-en funtsen % 38 bertako merkatuan (Espainiako Estatuak) inbertituta daude; % 49, euroguneko herrialdeetan, eta gainerako % 13a, eurogunekoak ez diren herrialdeetan.



Era berean, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en funtsen % 48 errenta finkoko tituluetan inbertituta daude, aurreko urtean baino ehuneko 5 puntu gehiago, eta horrek esan nahi du arriskuarekiko esposizio txikiagoa duten aukeratarantz eboluzionatu dela. Era berean, % 11 errenta aldakorrek tituluetan inbertituta daude; % 35 inbertsio-funtsetan; % 4 eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan, eta gainerako % 2a, aurreko kategorietan sartuta ez dauden beste aktibo mota batzuetan.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMV) erabilitako irizpide bera erabiliz gero, errenta aldakorrekotzat jotako inbertsio-funtsak errenta aldakor gisa zenbatuko lirateke (% 20). Aurrekoaren ondorioz, enpleguko eta banakako BGAE-en funtsen % 31 errenta aldakorrean inbertituta egongo lirateke 2022an; hau da, aurreko ekitaldian baino % 1 gutxiago.

#### 4.7. Enpleguko BGAE-en inbertsioen egitura

##### 42. koadroa

2022eko enpleguko BGAEen inbertsioen egitura	ETXEKOA	EUROGUNEKO GAINERAKO HERRIALDEAK	EUROGUNEKO K EZ DIREN HERRIALDEAK	GUZTIRA
Errenta finkoa	2.344.771.342,87 €	2.179.416.971,17 €	1.297.564.087,95 €	5.821.752.401,99 €
Errenta aldakorra	648.054.675,12 €	812.382.614,37 €	547.767.653,30 €	2.008.204.942,79 €
Inbertsio-funtsak	957.316.367,05 €	5.004.691.541,77 €	342.711.898,14 €	6.304.719.806,96 €
Moneta-merkatuko funtsak	0,00 €	198.717.351,49 €	0,00 €	198.717.351,49 €
Errenta aldakorrekotzat jotako funtsak	509.236.585,34 €	2.266.700.787,28 €	136.578.141,50 €	2.912.515.514,12 €
Errenta finkoko funtsak	162.134.850,31 €	1.476.542.354,46 €	77.675.575,85 €	1.716.352.780,62 €
Funts mistoak	802.502,47 €	134.030.924,80 €	0,00 €	134.833.427,27 €
Higiezin funtsak	4.334.938,06 €	107.779.488,14 €	26.097.439,42 €	138.211.865,61 €
Inbertsio-funts libreak	76.271.771,37 €	655.067.032,17 €	21.933.057,88 €	753.271.861,41 €
Merkatu ez-monetarioko funtsak	204.535.719,51 €	165.853.603,43 €	80.427.683,50 €	450.817.006,44 €
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	450.766.989,01 €	7.106.543,05 €	22.223.876,27 €	480.097.408,33 €
Gainerako aktiboak	292.196.119,23 €	0	0	292.196.119,23 €
<b>Aktiboen guztizkoa</b>	<b>4.693.105.493,28 €</b>	<b>8.003.597.670,36 €</b>	<b>2.210.267.515,66 €</b>	<b>14.906.970.679,30 €</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Enpleguko BGAE-en funtsen % 31 etxeko merkatuan inbertituta daude; % 54, euroguneko herrialdeetan, eta gainerako % 15a, eurogunekoak ez diren herrialdeetan.

Bestalde, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en funtsen % 39 errenta finkoko titulutan inbertituta daude (aurreko urtean baino 6 puntu gutxiago); % 14, errenta aldakorrek titulutan; % 42, inbertsio-funtsetan; % 3, eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan, eta gainerako % 2a, aurreko kategorietan sartuta ez dauden beste aktibo mota batzuetan.

Hortaz, CNMVk erabiltzen duen irizpideari jarraikiz, esan daiteke 2022an enpleguko BGAE-en funtsen % 33 errenta aldakorrean inbertituta egon direla. Hau da, aurreko urtearen aldean ehuneko bi puntu jaitsi da.

## 4.8. Banakako BGAE-en inbertsioen egitura

### 43. koadroa

2022eko banakako BGAEen inbertsioen egitura	ETXEKOA	EUROGUNEKO	EUROGUNEKO	GUZTIRA
		GAINERAKO	K EZ DIREN	
		HERRIALDEAK	HERRIALDEAK	
Errenta finkoa	2.776.104.922,38 €	3.247.510.016,15 €	1.085.082.029,04 €	7.108.696.967,57 €
Errenta aldakorra	135.330.830,77 €	447.181.571,90 €	308.068.757,29 €	890.581.159,96 €
Inbertsio-funtsak	1.614.945.032,34 €	1.366.783.801,51 €	31.731.949,20 €	3.013.460.783,06 €
Moneta-merkatuko funtsak	2.502.633,04 €	7,85 €	0,00 €	2.502.640,90 €
Errenta aldakorreko funtsak	1.518.279.776,65 €	861.818.227,95 €	27.218.899,80 €	2.407.316.904,41 €
Errenta finkoko funtsak	53.323.553,98 €	349.575.510,21 €	1.348.827,75 €	404.247.891,94 €
Funts mistoak	3.461.490,74 €	19.974.362,74 €	0,00 €	23.435.853,48 €
Higiezin funtsak	1.053.851,54 €	491.407,56 €	3.164.221,66 €	4.709.480,76 €
Inbertsio-funts libreak	66.557,30 €	0,00 €	0,00 €	66.557,30 €
Merkatu ez-monetarioko funtsak	36.257.169,08 €	134.924.285,19 €	0,00 €	171.181.454,28 €
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	691.841.817,25 €	6.777.558,89 €	9.795.279,75 €	708.414.655,89 €
Gainerako aktiboak	239.138.688,89 €			239.138.688,89 €
<b>Aktiboen guztizkoa</b>	<b>5.457.361.291,63 €</b>	<b>5.068.252.948,45 €</b>	<b>1.434.678.015,28 €</b>	<b>11.960.292.255,37 €</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Banakako BGAE-en funtsen % 46 etxeko merkatuan inbertituta daude; % 42, euroguneko herrialdeetan, eta gainerako % 12a, eurogunekoak ez diren herrialdeetan.

Era berean, aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en funtsen % 60 errenta finkoko titulutan inbertituta daude; % 7, errenta aldakorreko titulutan; % 25, inbertsio-funtsetan; % 6, eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan, eta gainerako % 2a, aurreko kategorietan sartuta ez dauden beste aktibo mota batzuetan. Hortaz, CNMVk erabiltzen duen irizpideari jarraikiz, banakako BGAE-en funtsen % 28 errenta aldakorrean inbertituta egongo lirateke, aurreko ekitaldiaren antzeko baldintzetan.

Banakako BGAE-etan, errenta finkoan inbertitzen da gehien (% 60), errenta aldakorrean egiten den inbertsioa enpleguko BGAE-etakoa baino txikiagoa da, eta eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan egiten den inbertsioaren posizioa nabarmentzekoa da; izan ere, 2022ko abenduaren 31n, % 6koa izan zen, aurreko urtean baino lau puntu gutxiago.

## 4.9. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek EAEn egiten duten inbertsioa

### 44. koadroa

EAE inbertsioa - Enpleguko eta banakako BGAEen	1.537.438.146,58 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko eta banakako	26.867.262.934,67 €
	<b>% 5,72</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek prestazioengatik konpromisoei erantzuteko eraturako funtsen % 5,72 egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) duten jaulkitzaileen aktiboetan inbertituta daude. Ehuneko hori aurreko ekitaldikoa baino pixka bat handiagoa da.



#### 4.9.1. Enpleguko BGAE-ek EAEn egiten duten inbertsioa

##### 45. koadroa

Inbertsioa EAE - Enpleguko BGAEak	1.109.241.554,11 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko BGAEak	14.906.970.679,30 €
	<u>% 7,44</u>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAE-en kasuan, ehuneko hori % 7,44 da, eta ehuneko hori % 3,58ra jaisten da banakako BGAE-etan, ondorengo koadroan ikusten den bezala.

#### 4.9.2. Banakako BGAE-ek EAEn egiten duten inbertsioa

##### 46. koadroa

Inbertsioa EAE - Banakako BGAEak	428.196.592,47 €
Aktiboen guztizkoa - Banakako BGAEak	11.960.292.255,37 €
	<u>% 3,58</u>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

### 4.10. Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek EAEn zor publikoan egiten duten inbertsioa

##### 47. koadroa

Eusko Jaurlaritzaren inbertsioa - Enpleguko eta banakako	288.665.205,53 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko eta banakako BGAEak	26.867.262.934,67 €
	<u>% 1,07</u>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek prestazioengatik konpromisoerantzuteko eraturako funtsen % 1 baino zertxobait gehiago Eusko Jaurlaritzaren zor publikoan inbertituta dago.

##### 48. koadroa

Inbertsioa Eusko Jaurlaritza - Enpleguko	157.357.392,85 €
Aktiboen guztizkoa - Enpleguko BGAEak	14.906.970.679,30 €
	<u>% 1,06</u>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

Enpleguko aurreikuspen-planak dituzten BGAE-ek % 1,06 inbertitu dute, eta banakako BGAE-ek antzeko ehunekoa inbertitu dute, % 1,10, Eusko Jaurlaritzaren zor publikoan, 48. eta 49. koadroetan ikus daitekeenez.

##### 49. koadroa

Inbertsioa Eusko Jaurlaritza - Banakako	131.307.812,68 €
Aktiboen guztizkoa - Banakako BGAEak	11.960.292.255,37 €
	<u>% 1,10</u>

*Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

#### 4.11. BGAE-en inbertsioen xede diren EAeko enpresa nagusiak

##### 50. koadroa

EAE-KO ENPRESAK	ENPLEGUKOA	BANAKAKOA	GUZTIRA
EUSKO JAURLARITZA	267.396.957,03	131.307.812,68	398.704.769,71
BBVA	261.684.742,33	135.880.916,57	397.565.658,90
LABORAL KUTXA	141.883.616,68	21.866.669,79	163.750.286,47
KUTXABANK	82.644.841,23	75.066.753,05	157.711.594,28
ORZAREN BITARTEZ EGINDAKO INBERTSIOAK	113.478.376,97	0,00	113.478.376,97
KUTXABANK BIZI-ASEGURUA ETA PENTSIOAK	105.566.542,01	998.586,22	106.565.128,23
IBERDROLA	35.073.174,64	22.712.935,40	57.786.110,04
CIE AUTOMOTIVE	13.043.300,17	932.563,85	13.975.864,02
SVRNE MUTUA DE SEGUROS Y REASEGUROS A PRIMA FIJA	78.887,84	13.894.043,49	13.972.931,33
VITALQUILER	3.892.800,40	7.785.600,80	11.678.401,20
IBERDROLA RENOVABLES SA	11.656.645,15	0,00	11.656.645,15
TUBACEX	11.446.363,12	0,00	11.446.363,12
CAF	5.150.010,00	3.525.159,42	8.675.169,42
IBERDROLA FINANCIACIÓN	2.980.385,91	5.249.275,63	8.229.661,54
GESTAMP AUTOMOCION SA	5.885.748,72	1.157.640,09	7.043.388,81
VIDRALA	4.997.857,10	1.972.058,53	6.969.915,63
EAE-KO GAINERAKO ENPRESAK	42.381.304,81	5.846.576,95	69.450.571,66
<b>EAEko inbertsioaren guztizkoa</b>	<b>1.109.241.554,11</b>	<b>428.196.592,47</b>	<b>1.537.438.146,58</b>
<b>Erakundeen guztizkoa</b>	<b>14.906.970.679,30</b>	<b>11.960.292.255,37</b>	<b>26.867.262.934,67</b>
<b>%</b>	<b>% 7,44</b>	<b>% 3,58</b>	<b>% 5,72</b>

*Iurria: Finantza Politikako Zuzendaritza*

#### 4.12. Administrazio-gastuak

BGAE-ek eskuratutako errentagarritasuna, inbertsio-estrategiaren bidez eskuratutako errentagarritasunaren arabera izateaz gain, administrazio-gastuen kontzeptuan aplikatzen den ehunekoaren mendekoa da. Inbertsio-estrategia bera izan arren, gastu handiago batzuek oso eragin kaltegarria dute metatutako kapitalean epe luzera.

Horrenbestez, gastu neurritzkoa izatea da, inbertsio-estrategia egoki batekin batera, hala finantzaren ikuspegitik nola bizi-zikloaren ikuspegitik (nahiko ekarpen egiten hasita adin goiztiarretan), beste faktore erabakigarria kapital egokiak lortzeko eta nahikoa den pentsio osagarri bat atera dadin hortik.

2022an, berriz, alde handia egon da enplegu-modalitateko eta banakako modalitateko gastuen artean. Jarraian emango dugun datua, administrazio-gastuen batez besteko ehunekoarena, banakako eta enpleguko plan guztien administrazio-gastuen ehunekoaren batezbesteko aritmetikoa da. Esandakoarekin bat, banakako BGAE-en aurreikuspen-planen administrazio-gastuen batezbestekoa **% 1,27koa** izan da ondare osoarekiko. Zehaztutako ekarpenen enplegu-planen administrazio-gastuen batezbestekoa **% 0,88koa** izan da.

Horrek esan nahi du banakako BGAE-etan administrazio-gastu moduan ezarritako ehunekoa % 44 handiagoa dela enpleguko BGAE-ek zehaztutako ekarpenen enplegu-planetan gastu moduan ezarritakoa baino. Bestalde, enpleguko 4 BGAE sektorialen administrazio-gastuen batezbestekoa (enpleguko BGAE-en ondare osoaren % 79 osatzen dute eta modalitate horretako bazkideen % 92 biltzen dute) **% 0,41** da. Horrek esan nahi

du banakako BGAE-ek egozten dituzten administrazio gastuen ehunekoa enpleguko 4 BGAE-ek egozten dituzten gastuen batezbestekoaren hirukoitza dela.

Alabaina, aurreko datu horiek beste ñabardura batzuk hartzen dituzte batez besteko gastu haztatuak zer ondare espezifikoren gainean aplikatzen diren kontuan hartuta kalkulatzeko badira. Hori horrela, banakako BGAE-en aurreikuspen-planen administrazio-gastuen batezbesteko haztatua % **1,46koa** izan da, eta zehaztutako ekarpenen enplegu-planen batezbesteko haztatua, % **0,50koa**. Horrek esan nahi du banakako BGAE-etan administrazio-gastu gisa egotzitako batez besteko ehuneko haztatua ia hiru aldiz handiagoa dela enpleguko BGAE-ek zehaztutako ekarpenen enplegu-planetan batez besteko gastu haztatu gisa egotzitako ehunekoa baino.

Ildo horretatik, kudeaketa kolektiboa duten enpleguko BGAE-ek abantaila argiak dituzte banakakoekin alderatuz gero. Eta abantaila hori oso garrantzitsua izan daiteke metatutako ondarearen edo jasotzeko eskubidea ematen duen pentsioaren balioaren azken kalkulua egiterakoan.

Kontuan hartu behar da, 20 urtez ekarpenak egin ostean, urtean errentagarritasun-puntu estira bat gehitzeak ekarpen-fasearen amaieran zuzenbide ekonomikoaren % 10 gehiago izatea ekar dezakeela, eta horrek pentsio handiagoak izatea ekarriko lituzkeela.

#### 51. koadroa

##### BANAKAKO PLANAK

Inbertsio-orientazioa	Haztatu gabeko batez besteko gastuak inbertsio-orientazioko	Batez besteko gastu haztatuak inbertsio-orientazioko
Errendimendu finkoko bermatuak	% 0,73	% 0,63
Errendimendu aldakorrek bermatuak	% 0,81	% 0,56
Beste batzuk	% 1,60	% 1,60
Epe laburrerako errenta finkoa	% 1,01	% 0,93
Epe luzerako errenta finkoa	% 1,06	% 1,17
Errenta finko mistoa	% 1,45	% 1,56
Errenta aldakorra	% 1,53	% 1,58
Errenta aldakor mistoa	% 1,44	% 1,46
Burtsa-indize bat edo errenta finkoko bat errepikatu, erreproduzitu edo erreferentziatzen hartzen du	% 1,35	% 1,47
<b>Batez besteko gastuen guztizkoa</b>	<b>% 1,27</b>	<b>% 1,46</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

#### 52. koadroa

##### EKARPEN FINKATUA DUTEN ENPLEGU-PLANAK

Inbertsio-orientazioa	Haztatu gabeko batez besteko gastuak, ekarpen definitua duten enplegu-planetako inbertsio-orientazioaren arabera	Batez besteko gastu haztatuak, ekarpen definitua duten enplegu-planetako inbertsio-orientazioaren arabera
Beste batzuk	% 0,65	% 0,65
Epe laburrerako errenta finkoa	% 0,62	% 0,31
Epe luzerako errenta finkoa	% 0,95	% 0,19
Errenta finko mistoa	% 0,89	% 0,41
Errenta aldakorra	% 1,22	% 1,23
Errenta aldakor mistoa	% 0,95	% 1,17
<b>Batez besteko gastuen guztizkoa</b>	<b>% 0,88</b>	<b>% 0,50</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

## 5. AURREIKUSPEN PLANIK GABEKO BGAE-AK

2020ko urtarrilaren 15ean, Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Agindua argitaratu zen (aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia garatzen duena).

Erakunde horiek bazkidearen ondasunetan izaten diren kalte edota galerak estal ditzakete, dela etxebizitzan, etxeko ostilamenduan, lan-tresnetan, ganaduan, uztetan, basoetan, barku-ontzietan edo bere lan-jarduerari edo ogibideari lotutako beste edozein ondasunetan, baita ehorzketaren ondoriozko gastuak eta zerbitzuak ere.

Bazkideek elkarri laguntzea izan behar du erakunde horien helburu bakarra, eta irabazi-asmorik ez izatea, bere oinarrizko printzipioetako bat; beraz, gizarte-aurreikuspeneko mutualitatea izango da erakunde horien osagai bereizle eta funtsezkoa, bere helburua sozialean eta estatutuen erregulazioan ez baita elementu aseguratzailerik bakar bat ere egongo.

Aseguru-jarduerarik gabeko erakundea izateko, erakundearen batzar orokorraren aurretiazko adostasuna behar da, eta estatutuak aldatu egin behar dira.

2020an, 2021ean eta 2022an, aurreikuspen-planik gabeko zenbait erakunde batu dira agindu horretan xedatutakora.

Zehazki, azken ekitaldian, bereizi gabe / heriotzak modalitateko 7 BGAE aseguru-jarduerarik gabe / heriotzak modalitateko bereizi gabeko BGAE bilakatu dira.

Jarraian, 2022. urteko daturik nabarmenenak ematen dira, aurreikuspen-planik gabeko BGAE guztiei dagozkienak, egun dauden aurreikuspen-planik gabeko erakundeen modalitateak kontuan hartuta.

53. koadroa

Modalitatea	Erakunde kop.	Bazkid eak	Balantze-zifra	Kuotak	Prestazioak
Gizarte-prestazioak	6	4.837	1.878.520,22	1.002.932,27	1.238.327,44
Bereizi gabe / heriotzak	4	599	189.889,43	53.575,00	37.433,41
Bereizi gabe / ontziak	1	0	0,00	0,00	0,00
Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / heriotzak	26	91.537	19.389.244,30	4.646.971,38	2.610.897,23
Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / Sutearo	1	4.214	4.633.598,78	1.793.207,76	651.309,19
Bereizi gabeko modalitatea, aseguru-jarduerarik gabe / garraioak	1	142	1.576.542,95	199.653,05	5.405,61
<b>Aurreikuspen-planik gabeko BGAEen guztizkoa</b>	<b>39</b>	<b>101.329</b>	<b>27.667.795,68</b>	<b>7.696.339,46</b>	<b>4.543.372,88</b>

Iturria: Finantza Politikako Zuzendaritza

Aurreikuspen-planik gabeko BGAE-ek 100.000 bazkide baino gehiago babesten dituzte. Ondare metatua % 2 hazi zen 2022an. Kuoten zenbateko osoa prestazioen ordainketa baino handiagoa da oraindik ere. Ildo beretik, nabarmendu egin behar da aseguru-jarduerarik gabe / heriotza modalitateko bereizi gabeko erakunde gehienek egindako ahalegina urteko kuotak handitzeko. Jarduera horri esker, erakunde horiek pixkanaka kapitalizatu ahal izan dira, haien kaudimena indartzeko.



## 6. GAINBEGIRATZEA 2022

Atal honetan, 2022an garatutako gainbegiratze-jarduera jaso da, labur-labur.

Araudiak ezartzen duenaren arabera, BGAE-en gainbegiratua honetan datza: «etengabe egiaztatzea erakundeen jarduera zuzena dela, aplikatzekoa zaien araudia betetzen dela, haien finantza-egoera eta bazkidearen eta bere BGAEaren arteko merkatu-jokabideak eta harremanak betetzen direla».

Zeregin hori BGAE-en jardueraren jarraipenaren bidez gauzatzen da, bai BGAE-ek aldian-aldian bidalitako Estatistika-Kontabilitate Dokumentazioa jaso eta berrikusita, bai dauden erakunde-tipologiaren arabera dagozkien berariazko jarduerak eginda.

Jarraipen horren helburua da BGAE-ek bidalitako informazioa aztertzea, bai eta ondo funtzionatzen duela zaintzea ere, baldin eta barne-eragiketan anomaliak egon daitezkeenaren zalantzak badaude.

BGAE-ek aldian-aldian bidali behar dituzten (horretarako onartutako araudiaren arabera) Estatistika-Kontabilitate Dokumentazioari dagokionez, 2022. urtean egindako igorpenak honako hauek izan dira:

### BGAE zk.

#### Estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa bidaltzea

	PPS (1)	Heriotzak (2)	24.2 art. (3)	Beste batzuk (4)	Guztira
1. h	71	27	5		
2. h	70	27	5		
3. h	70	27	5		
4. h	68	29	5	3	
<b>Guztira</b>	<b>279</b>	<b>110</b>	<b>20</b>	<b>3</b>	<b>412</b>

(1) Gizarte-aurreikuspeneko planak bideratzen dituzten BGAEak.

(2) Hilez gero, bazkideen ehorzketa-gastuak estaltzen dituzten BGAEak.

2019ko abenduaren 29ko Aginduaren 2. xedapen gehigarriaren arabera dokumentazioa barne hartzen du.

(3) 5/2012 Legearen 24.2 artikuluan jasotako prestazioak ematen dituzten BGAEak.

(4) Gainerako BGAEak.

Estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa bidaltzeak eta aztertzeak BGAE-en gainbegiratzeko jardunaren oinarritzko oinarrietako bat ematen du; izan ere, besteak beste, aukera ematen du kontabilitate-informazioa eskuratzeko, inbertsio-zorroak banakatzeko (tresnen bidez, estaldurako aktiboen arabera), arrisku biometrikoak beren gain hartzen dituzten edo interes-tasa bat bermatzen duten BGAE-etan ezarritako kaudimen-ratioak betetzeari buruzko eredu zehaztasuna egiaztatzeko eta horiek nahikoak ez badira sor daitezkeen gorabeherak egiaztatzeko.





Halaber, erakundeetako parametro garrantzitsuen bilakaerari eta iraunkortasunari buruzko informazio zabala ematen du, hala nola bazkide kopurua, ekarpenak zein prestazioak eta mugimenduak.

Emandako informazioaren azterketa xehatu batek oinarri gisa balio du aipatu edozein gairi buruzko informazio-eskakizun gehigarriak eskatzeko, baldin eta horietan unean uneko ahultasunen bat antzematen bada, edo, bestela, modu sistematikoan, lagin-izaerarekin, betiere.

Aldi berean, BGAE-en azpitaldeei informazio espezifikoak eskatzen zaie, kapituluaren amaieran zerrendatzen diren garrantzi bereziko jarduera zehatzak gainbegiratzeko.

Hauek izan dira 2022an egindako gainbegiratze-jarduera nagusiak, ohikotzat jotako informazio-eskaera guztiak kontuan hartu gabe:

Jarduera horiei dagokienez, 2022an ikuskapen-prozesuak delakoak praktikatzen hasi dira. Horiekin lortu nahi dena zera da, BGAE bakoitzaren azterketan sakontzea, dauden informazio-iturri guztietatik abiatuta, Urteko Kontuak barne, haien berezitasunak eta araudira nola egokitzen diren zehatzago ezagutu ahal izateko.

Ildo horretan, iaz, aurretik aipatutako ohiko jardueraz gain, honako hauen jarraipen zehatzagoa egin da:

- BGAE-etako gobernu-organoetan bazkideen ordezkariak hautatzeko erabiltzen duten sistema, ohiko bazkideak hautatzekoari dagokionean arreta berezia jarritz, zeharkako sistema baliatzean; izan ere, asko erabiltzen den, hainbat eta hainbat erakundetan bazkide asko baitaude.

Azterketa hori, oraingoz, bazkide sustatzailea finantza- edo aseguru-erakunde bat den banakako edo enpleguko BGAE gehienetara mugatu da.

Oro har, ikusi da erakundeek ez dutela behar adina interes ohiko bazkideek erakundeen gobernantzan parte har dezaten sustatzeko. Arlo horretako estatutu-betekizun formalak betetzera mugatzen dira, eta, oro har, ondorioztatzen da ez dagoela hautagairik lanpostu horiek betetzeko, eta, modu subsidiarioan, bazkide sustatzaileak berak aukeratutako bazkideei esleitzen zaizkie.

Gardenagoa izateko eta ohiko bazkideek BGAE-en gobernu-organoetan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzeko eskatu da.

- Era berean, BGAE-ek (gehienek) administrazio-funtzioak eta funtsezko funtzioak kanpora ateratzeko erabilitako formulak gainbegiratu dira, batez ere kudeaketa-baliabide propiorik ez duten erakundeetan.

Akatsak atzeman dira erakundeek kanporatutako jardueren jarraipena egiteko hartutako prozeduretan, urriaren 27ko 203/2015 Dekretuaren 63.4 artikulua arabera, eta gabeziak eta zalantzak hauteman dira benetan egindako jarraipenean. Arlo horretan ezarritako sistemak hobetzeko eskaera egin da.



Era berean, arlo honetan, zenbait BGAEtan akatsak antzeman dira, eta horietan, edo ez da idatziz zehazten kanpora ateratzeko eginkizunak bere gain hartzen dituen erakundeak edo erakundeek jaso beharreko ordainsaria, edo ez da behar den maiztasunarekin eguneratzen, BGAEa osatzen duten aurreikuspen-planen kopuruarekin eta ondarearekin lotzen den kasuetan; inguruabar horiek ez dira oztopo ustez konprometitutako zenbatekoak ordaintzeko, eta jarduteko modu hori izan daiteke zehapen-espeditate posibleak irekitzeko oinarria.

-Heriotzen BGAE-etan (hau da, bazkidea hilez gero ehorzketa-gastuak estaltzen dituzten BGAE-etan), eskaera bat bideratu da BGAE horien funtsen aurka gastuak ordaintzeko finkatutako betekizunen berri izateko. Erantzunik ohikoena kontu mankomunatuak egotea da, baina arau horren salbuespenak daude.

Xehetasun handiagoz ari dira aztertzen azpisektore horren berezko ezaugarriak, kudeaketaren eta barne-kontrolaren arloko gabeziak nahiko orokorrak direla ikusita. Eta hori, neurri handi batean, ohiko bazkideek ez dutelako erakunde horien kudeaketan parte hartzen gertatzen da.

Azkenik, 2022an, bi espeditate ireki zaizkie bi BGAEri, eta ebatzi egin dira. Biak arau-hauste astun egiteagatik izan dira, aurreikuspen-planetako inbertsio-zorroaren parte diren IKE edo arrisku kapitaleko entitateek aplikatutako komisioak ez sartzeagatik guztizko administrazio-gastuetan, otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuaren 16. artikuluko 1.2 apartatuan ezarritakoak dioen moduan.

Bi espeditate horien ondorioz, 48.000 €-ko zehapenak ezarri ziren, gutxieneko mailan.